

**Fiskalizazio Txostena**

**Informe de Fiscalización**

**Euskal Autonomia  
Erkidegoaren Administrazio  
Orokorren Kontua**

**Cuenta de la Administración  
General de la Comunidad  
Autónoma del País Vasco**

**2021**





## AURKIBIDEA / ÍNDICE

|  |    |
|--|----|
| LABURTZAPENAK .....  | 7  |
| I. SARRERA.....  | 9  |
| II. IRITZIA .....  | 10 |
| II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia .....  | 10 |
| II.2 Administrazio orokorraren kontuari buruzko iritzia .....                        | 10 |
| III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI<br>BURUZKO IRIZPENAK ..... | 11 |
| III.1 Aurrekontuak eta kontabilitatea .....  | 11 |
| III.2 Pertsonaleko gastuak.....  | 11 |
| III.3 Dirulaguntzak .....  | 12 |
| III.4 Kontratazioa.....  | 13 |
| III.4.1 Kontratazioko urteko plana .....   | 14 |
| III.4.2 Aurreko ekitaldietan esleitutako espedienteak .....                          | 14 |
| III.4.3 2021ean esleitutako espedienteak .....                                       | 14 |
| III.4.4 Kontratu txikiak .....   | 16 |
| IV. FINANTZAREN ANALISIA.....  | 17 |
| V. 2021EKO EKITALDIKO KONTUAK.....   | 21 |
| ERANSKINAK .....   | 27 |
| A.1 Araudi aplikagarria .....  | 27 |
| A.2 Aurrekontuko aldaketak .....   | 28 |
| A.3 Pertsonaleko gastuak.....  | 29 |
| A.4 Funtzionamendu-gastuak .....   | 30 |
| A.5 Transferentziak eta dirulaguntza korronteak eta kapitalezkoak .....              | 31 |
| A.6 Inbertsio errealak .....   | 33 |
| A.7 Aktibo finantzarioen gehikuntza .....  | 35 |
| A.8 Tasak eta bestelako sarrerak .....   | 36 |
| A.9 Transferentzia korronteengatiko sarrerak.....                                    | 36 |
| A.10 Kapital transferenziengatiko sarrerak.....                                      | 38 |
| A.11 Aktibo finantzarioen gutxitzea .....  | 39 |
| A.12 Kobratzeke eta ordaintzeke dauden hondarrak .....                               | 39 |
| A.13 Diruzaintza .....   | 40 |



|   |  |           |
|---|--|-----------|
| A.14  | Aurrekontuz kanpoko eragiketak.....                        | 40        |
| A.15  | Zor publikoa .....   | 42        |
| A.16  | Emandako abalak .....                                      | 45        |
| A.17  | Konpromiso-kredituak .....                                 | 46        |
| A.18  | Kontratazioa.....  | 48        |
| A.19  | Dirulaguntzen analisisa.....                               | 53        |
| A.20  | Kontabilitate publikoa.....                                | 56        |
| <b>ALEGAZIOAK.....</b>  |  | <b>59</b> |
| <b>ABREVIATURAS .....</b>   |  | <b>79</b> |
| <b>I. INTRODUCCIÓN.....</b>                                       |  | <b>81</b> |
| <b>II. OPINIÓN .....</b>  |  | <b>82</b> |
| II.1  | Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....         | 82        |
| II.2  | Opinión sobre la cuenta de la administración general ..... | 82        |
| <b>III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO</b> |  |           |
| <b>Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN .....</b>                          |  | <b>83</b> |
| III.1   | Presupuestos y contabilidad.....                           | 83        |
| III.2   | Gastos de personal .....                                   | 83        |
| III.3   | Subvenciones.....  | 84        |
| III.4   | Contratación .....   | 86        |
| III.4.1   | Plan anual de contratación.....                            | 86        |
| III.4.2   | Expedientes adjudicados en ejercicios anteriores.....      | 86        |
| III.4.3   | Expedientes adjudicados en 2021 .....                      | 87        |
| III.4.4   | Contratos menores .....                                    | 88        |
| <b>IV. ANÁLISIS FINANCIERO .....</b>                              |  | <b>89</b> |
| <b>V. CUENTAS DEL EJERCICIO 2021 .....</b>                        |  | <b>93</b> |



|   |            |
|---|------------|
| <b>ANEXOS</b> .....   | <b>99</b>  |
| A.1 Normativa aplicable .....                                   | 99         |
| A.2 Modificaciones presupuestarias .....                        | 100        |
| A.3 Gastos de personal .....                                    | 101        |
| A.4 Gastos de funcionamiento .....                              | 102        |
| A.5 Transferencias y subvenciones corrientes y de capital ..... | 103        |
| A.6 Inversiones reales .....                                    | 105        |
| A.7 Aumento de activos financieros .....                        | 107        |
| A.8 Tasas y otros ingresos .....                                | 108        |
| A.9 Ingresos por transferencias corrientes .....                | 108        |
| A.10 Ingresos por transferencias de capital .....               | 110        |
| A.11 Disminución de activos financieros .....                   | 111        |
| A.12 Residuos pendientes de cobro y pago .....                  | 111        |
| A.13 Tesorería .....  | 112        |
| A.14 Operaciones extrapresupuestarias .....                     | 113        |
| A.15 Deuda pública .....  | 114        |
| A.16 Avales concedidos .....                                    | 117        |
| A.17 Créditos de compromiso .....                               | 118        |
| A.18 Contratación .....   | 120        |
| A.19 Análisis de subvenciones .....                             | 125        |
| A.20 Contabilidad pública .....                                 | 128        |
| <b>ALEGACIONES</b> .....  | <b>131</b> |

Vitoria-Gasteiz, 2023ko martxoaren 30a

Vitoria-Gasteiz, a 30 de marzo de 2023





Herri Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## LABURTZAPENAK

|            |  |
|------------|--|
| ADIF       | Trenbideetako azpiegituren administratzailea.  |
| AEFILO     | 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontuaren Egonkortasunari eta Finantzaren Iraunkortasunari buruzkoa.   |
| BEM        | Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa.   |
| BEZ        | Balio Erantsiaren gaineko Zerga.   |
| DLO        | 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.  |
| EAE        | Euskal Autonomia Erkidegoa.  |
| EAEAOL     | 1/2021 Legea, otsailaren 11koa, 2021eko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituena.  |
| EAEHONALTB | 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, 1/1997 Legegintzako Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-ogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena.  |
| EAEKPP     | Euskal Autonomia Erkidegoaren Kontabilitate Publikoko Plana, 2012ko ekainaren 25eko Agindu bidez onartutakoa, Ekonomia eta Ogasun Sailburuarena.   |
| EAETB      | 1/2011 Legegintzako Dekretua, maiatzaren 24koa, Euskadiko Aurrekontu Araubidearen Gaietan Indarrean dauden Legezko Xedapenen Testu Bategina Onartu eta EAeko Sektore Publikoko Fundazio eta Partzuergoei ezargarria zaien aurrekontuko araubidea arautzen duena. |
| EAO        | Estatuko Administrazio Orokorra.   |
| EB         | Europar Batasuna.  |
| EBAO       | Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala.   |
| EBS        | Elkarrekiko Berme Sozietatea.  |
| EGF        | Europako Gizarte Funtsa.   |
| EHTSB      | Euskadiko trenbide sare berria.  |
| EHU        | Euskal Herriko Unibertsitatea.   |
| EIBM       | Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoa.   |
| EKB        | Kontrol Ekonomikoko Bulegoa.   |
| EKKLTB     | 2/2017 Legegintzako Dekretua, urriaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen Testu Bategina onesten duena.  |
| ETE        | Enpresa txiki eta ertainak.  |
| FEADER     | Landa Garapenerako Nekazaritzako Europako Funtsa.  |
| FEAGA      | Bermeen Nekazaritzako Europako Funtsa.   |
| FEDER      | Eskualdearen Garapen Ekonomikorako Europako Funtsa.  |



Herri Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

|          |  |
|----------|--|
| FEI      | Finantzen Euskal Institutua.   |
| FEMP     | Itsasoko eta Arrantzuko Europako Funtsa.                             |
| GET      | Euskal Trenbide Sarea.   |
| GKE      | Gobernu Kontseiluaren Erabakia.                                      |
| HKEE     | Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.                                      |
| IEB      | Inbertsioen Europako Bankua.   |
| LGSS     | Larrialdietako garraio sanitarioaren sarea.                          |
| LH       | Lurralde historikoa.   |
| REACT-UE | Kohesioa eta Europako lurraldeak suspertzen laguntzeko programa.     |
| SPKL     | 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa. |





Herri Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## I. SARRERA

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, berau arautzen duen 1/1988 Legean eta Urteko Lan Programan xedatutakoaren arabera, 2021eko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorraren Kontuaren fiskalizazio txosten hau egin du.

Alderdi hauek aztertu ditu fiskalizazioak:

- Legezkoak: ezargarria den arautegia honako alor hauetan betetzen dela egiaztatzea: aurrekontua, zorpetzea, finantza-eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak, dirulaguntzak eta laguntza publikoak ematea eta zuzenbide publikoko diru-sarrerak.
- Kontularitzakoak: Kontua ezargarri diren kontularitzako printzipioen arabera gauzatu den aztertu da.
- EAEko Administrazio Orokorraren egoera ekonomikoaren finantza analisia.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasunari eta efizientziari buruzko analisia barne hartzen. Hala ere, aurkitu diren akatsak «Barne kontroleko sistemei eta kudeaketa prozedurei buruzko gogoetak» epigrafean azaldu dira xehetasunez.

## II. IRITZIA

### II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

1.- Bilboko Iturrigorri eta Gardezabal auzoetan mendi-hegalari eusteko larrialdi-jarduketei buruzko espedientea (19. espedientea), 734.01 egikaritze-unitatea urbanizatzeko obrei loturik, 2,8 milioi euroan esleitua, larrialdietako salbuespenezko prozeduraren bidez izapidetu da, eta ez da behar bezala justifikatu prozedura horren erabilera, egin beharreko jarduketak ez baitira berehala gauzatu (A1 akatsa) (ikus A.18).

2.- 2021eko ekainaren 15eko, uztailaren 27ko eta azaroaren 9ko eta 2022ko otsailaren 22ko eta maiatzaren 3ko Gobernu Kontseiluek, EKKLTBren 24.4 artikuluan aurreikusitako salbuespenezko prozeduraren bidez, 2021eko ekitaldiari dagozkion obligazio aitortuak ordaintzeko baimena eman dute, 127,1 milioi euroren zenbatekoarekin; ordea, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak kontrako txostena egin zuen. Gastu horiek honako hauei dagozkie: 108,8 milioi euroren 53 zerbitzu-kontraturik, 4,6 milioi euroren 3 hornidura-kontraturik, 851.232 euroren 2 obra kontraturik, 5,8 milioi euroren 2 hitzarmeni, eta eskola-jantokietako eta eskola-garraioko zerbitzuak emateari uzteagatik 7 milioi euroren kalte-ordainei. Ez-betetze nagusiak izan dira prestazioak egitea dagokion kontratu-espedientea izapidetu gabe eta kontratu-araudian ezarritakoaren arabera legokiekeen publikotasun- eta lehia-printzipioak bete gabe. Administrazioak erabaki horietan jasotako baimena baino lehen ordaindu zituen obligazio horiek, 76,4 milioi euro (ikus A.18).

Gure ustez, aurrez azaldutako ez-betetzeak alde batera utzita, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak 2021. ekitaldian zuzentasunez bete du ekonomia eta finantza jarduera arautzen duen lege araudia.

### II.2 ADMINISTRAZIO OROKORRAREN KONTUARI BURUZKO IRITZIA

Gure iritziz, eta 2021eko aurrekontuaren likidazioko 1.tik 4. oharrera bitartean adierazitakoa aintzat hartuta, honekin batera aurkeztutako EAeko Administrazio orokorraren kontuek alderdi nabarmen guztietan adierazten dute 2021eko ekitaldiko ekonomia jarduera, 2021eko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren irudi zehatza, bai eta data horretan bukatutako urteko ekitaldiari dagozkion emaitzena eta eskudiruzko fluxuena ere, aplikagarri den finantza informazioko arau esparruari jarraituz, eta, bereziki, hor jasotako kontabilitate printzipio eta irizpideei jarraikiz.



### III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan jasota daude, alde batetik, ekonomia eta finantza jarduera zuzentzen duten printzipioak betetzean eragin nabarmenik ez duten akatsak; eta, bestetik, kudeaketa hobetzeko agerian jarri diren prozedurazko alderdiak.

#### III.1 AURREKONTUAK ETA KONTABILITATEA

3.1.1.- Egoeraren balantzeak ez du ibilgetuaren hainbat kontu-sail osatzen duten ondasun guztien xehetasun banakaturik, hala nola: instalazio teknikoak, ekipo informatikoak, makineria, tresnak eta altzariak, aplikazio informatikoak, eta abar. Elementuak erositako urtearen arabera taldekatuta erregistratzen dira. Modu horretan erregistratutako zenbateko osoa 149,1 milioi euro da.

3.1.2.- EA Eren Sektorre Publikoaren Aurrekontu Orokorren eta Urteko Kontuen likidazioan jasotako informazioak EA Eren Ekonomia Kontrol eta Kontabilitateko Legearen testu bateginaren 8. artikulua eta Euskadiko Aurrekontu Araubidearen testu bateginaren 124. artikulua gutxiengo izaerarekin eskatzen duten informazioa jasotzen du. Gomendagarria litzateke EA Eren sektore publikoa osatzen duten erakunde multzoaren egoera bateratuak barne hartzea, horien guztien ekonomia, finantza eta ondare egoera, eragiketen emaitza eta aurrekontuen likidazioa erakutsiko dutenak.

3.1.3.- Enpresa-kaudimena babesteko ezohiko neurriei buruzko martxoaren 12ko 5/2021 Errege Lege Dekretuan ezarritako laguntzengatik ekitaldian jasotako 95,2 milioi euroren funts garbiek eragin zuten zenbateko bereko ordainketa-kredituak gehitzea aurrekontuan, EAATBren 102. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako hitzarmen-araubidearekin bat etorritik. Araubide hori, baina, ez da aplikagarria, funts horiek errege lege-dekretu horretan oinarritzen baitira, eta ez sinatu zen lankidetzeta-hitzarmenean, laguntzaren jarraipena eta kontrola egiteko tresna bat baino ez baitzen; kredituak gaitzeko araubidea erabili behar zatekeen.

#### III.2 PERTSONALEKO GASTUAK

3.2.1.- Ekitaldi itxieran indarrean zeuden Lanpostu Zerrendek ez zituzten 2021eko ekitaldian aurrekontuko zuzkidura zuten 790 lanpostu barne hartu, honako xehakapen honen arabera:

| LANGILERIA MOTA   | PLAZA KOP. |
|---|------------|
| Justiziako langileak .....                                    | 742        |
| Hezkuntza Saileko lan kontratupeko langile ez irakaslea ..... | 37         |
| Tokiko farmazialari sanitarioak .....                         | 8          |
| Hainbat sailletako langileak .....                            | 3          |
| <b>GUZTIRA</b>  | <b>790</b> |



### III.3 DIRULAGUNTZAK

#### Dirulaguntza zuzenak (ikus A.19)

3.3.1.- A.19 eranskinean jasotako dirulaguntzak aztertu ditugu eta honako alderdi hauek dira azpimarragarriak:

- Aztertutako dirulaguntzetarik hirutan, 13,6 milioi euroren zenbatekodunak, espezifikotasunagatik eta salbuespenezko edo aurreikusi ezin diren egoerei ez erantzuteagatik, araudian aurreikusitako beste modua erabil zitekeen (EONALTBren 49.6 artikulua), 2022ko aurrekontuetan modu izendunean sartuz, onuradunen mugaketa zehatz, bakar eta baztertzalea eginez. Era berean, 17,6 milioi euroren zuzeneko beste 12 dirulaguntzatan, aurreko bi ekitaldietakoren batean helburu bererako dirulaguntzak jaso zituztenak, 2021eko aurrekontuetan izendun modura sartu ahal izan ziren (A1 akatsa).
- Itunpeko ikastetxei Covid-19 protokoloak ezartzeko emandako 37,1 milioi euroren dirulaguntzan, ez da egiaztatu onuradunei banakako dirulaguntzak esleitu zaizkiela, emakida-akordioan ezarritako baldintzei jarraikiz (A2 akatsa).
- Emandako dirulaguntzetatik 3tan, 34,6 milioi eurorenak, memoriak ez dute behar hainbat justifikatzen deialdi publiko bat egiteko ezintasuna, EAEHONALTBren 49.7 artikulua agintzen duen bezala (A3 akatsa).
- Udalerri jakin batzuetan hiria berroneratzeko eta eraikinak zaharberritzeko jardueretarako emandako 13,6 milioi euroren 3 dirulaguntzatan, izaera berezia duten jarduerak subentzionatu dira, aurreikusitako kostuaren % 19 eta % 27ren pareko direnak; ordea, gainerako ekintzak Lurralde Plangintza, Etxebizitza et Garraio sailburuaren 2021eko uztailaren 21eko Aginduan aurreikusirik zeuden. Lehiarik gabeko dirulaguntzen emakida jarduera berezi horietara mugatu behar zatekeen, eta gainerakoak deialdi orokorretara bideratu (A4 akatsa).
- Covid-19ak eragindako kalte ekonomikoari dagokionez, prentsa eta irratiko komunikabideei emandako 5 milioi euroren zuzeneko dirulaguntzan, ez dira behar diren mekanismoak artikulatu laguntzaren helburuaren eta laguntza ematearen arteko erlazioa bermatzeko. Laguntza onuradunen artean banatzen da hedabide bakoitzak duen ikus-entzule kopuruaren proportzian, eta ez dago lotuta kalte ekonomikoekin (A5 akatsa).  
Esleipen eta justifikazio-baldintza horiek direla-eta, ezin da egiaztatu dirulaguntza emateko akordioan helburu bererako ezarritako beste laguntza batzuekiko bateragarritasun-muga (A6 akatsa).
- Emandako dirulaguntzetarik 4tan, guztira 18,6 milioi eurorenak, egiaztagiria aurkeztu aurretik konturako ordainketa erregimena ezarri da. Aldez aurretik egindako finantzaketa horrek salbuespenezko izaera behar du izan eta dirulaguntzari lotutako ekintzak gauzatu ahal izateko beharrezkoa dela justifikarazi gabe eman da, EAEHONALTBren 49.11 artikulua agintzen duena urratuz (A7 akatsa).
- Aztertutako dirulaguntzetarik 3tan, guztira 57,1 milioi eurorenak, 11,1 milioi euroren ordainketa aurreratua egin dira, onuradun horiek laguntzen bermerik eratu gabe, 698/1991 Dekretuaren 3.2 artikulua eskatzen duen moduan (A8 akatsa).



### Lehiari lotutako dirulaguntzak (ikus A.19)

3.3.2.- Hamaika dirulaguntza lerro arautzen dituen arautegia aztertzean -A.19an dago xehakatur-, honako akats hauek azaleratu dira:

- Ikasleentzako ordenagailu eramangarriak erosteko itunpeko ikastetxeentzako laguntza-lerroa (7. zenbakia) ez zen sartu Hezkuntza Sailaren dirulaguntzen plan estrategikoan, DLOren 8.1 artikuluan adierazitakoaren arabera (B1 akatsa).
- Aztertutako 10 lerrotan (1, 2, 3, 4, 6, 7, 8, 9, 10 eta 11 zenbakiak), gomendagarria litzateke dirulaguntzen plan estrategikoan eta aurrekontu-memorian edo programa berriak garatzeko proiektatutako neurrietan adierazleak txertatzea, proiektuen eta onuradunen kopurua kuantifikatze hutsera mugatu gabe, eta adierazle horien bidez eraginkortasuna eta efizientzia ebaluatzeko aukera izatea (B2 akatsa).
- Aztertutako lerroetako baten (6 zenbakia), ez da argitaratu Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian emakida-proposamena egiteko ardura duen organoaren osaera, EAEHONALTBren 49.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, eta horrek, gainera, errefusatzeko eskubidea benetan erabiltzea eragozten du (B3 akatsa).
- Aztertutako lerroetako 4tan (7, 9, 10 eta 11 zenbakiak), eskabideak aurkezteko araudiak ezartzen duen epea EAEHONALTBren 51.1 artikuluan ezarritako gutxieneko hilabeteko epea baino laburragoa da (B4 akatsa).
- Berrikusi diren lerroetatik 3tan (2, 3 eta 7 zenbakiak) komenigarria izango zatekeen DLOren 31. artikuluan xedatutakoa jasotzea, zeinak agintzen baitu hiru eskaintza eskatu behar direla baldin eta diruz lagundutako gastuak kontratu txikiaren mugak gainditzen baditu (B5 akatsa).
- Kulturako profesionalentzako laguntzak arautzen dituen lerroan (8 zenbakia), arautegiak ez du ezartzen onuradunak obligazioa duela Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta HKEEK eskatzen dien informazioa emateko, EAEHONALTBren 51.1k artikuluan ezarritakoaren arabera (B6 akatsa).
- Aztertutako 2 lerrotan (2 eta 3 zenbakiak), araudiak gastua justifikatu aurretik konturako ordainketen araubide bat ezartzen du. Aldez aurretik egindako finantzaketa horrek salbuespenezko izaera behar du izan eta dirulaguntzari lotutako ekintzak gauzatu ahal izateko beharrezkoa dela justifikarazi gabe eman da, EAEHONALTBren 49.11 artikulua agintzen duena urratuz (B7 akatsa).
- Aztertu diren 11 lerrotatik 2tan (9 eta 10 zenbakiak) ez dira laguntzak emateko ebazpenak argitaratu, EAEHONALTBren 49.2 artikulua agintzen duen moduan (B8 akatsa).

### III.4 KONTRATAZIOA

Ekitaldi honetan egikaritu diren edo eragina izan duten lehenagoko ekitaldietan esleitutako 16 espedienteko lagina eta 2021ean esleitutako 19 espedienteko lagina aztertu dugu. Aztertutako espedienteen zerrenda A.18 eranskinean dago xehatua.



### III.4.1 KONTRATAZIOKO URTEKO PLANA

2021eko ekitaldian, Administrazio-organoen, Ekonomia eta Ogasuna eta Osasun sailen sailak izan ezik, ez dute Kontratazio Urteko Plana egin, ezta kontratazioaren profileen argitaratu ere, SPKLren 28.4 artikulua agintzen duen moduan; Plan horrek, gutxienez, erregulazio harmonizatuko kontratuak jaso behar ditu. Hala ere, komenigarria litzateke ekitaldian egin asmo ziren kontratu guztiak argitaratzea, gardentasun handiagoa lortzeko eta ETEen lehia errazteko.

### III.4.2 AURREKO EKITALDIETAN ESLEITUTAKO ESPEDIENTEAK

- Berriatua HLHI handitzeko 2,4 milioi euroan esleitutako obra-espedientean (3 zenbakia), obraren exekuzioa atzeratu egin da kontratistari egotz dakioken erruagatik, eta ez da agirietan aurreikusitako zigorrek ezartzeko espedienterik izapidetu (D1 akatsa).
- 2 espedientetan (5 eta 12 zenbakiak) onartutako aldaketak, 2,5 milioi eurokoak guztira, kontratazioaren profileen argitaratu ziren, baina ez EBAOn, SPKLren 207.3 artikulua ezarritakoaren arabera (D2 akatsa).
- Bi espedientetan (12 eta 13 zenbakietan), Covid-19ak Segurtasun eta Hezkuntza Sailaren mendeko zentroetan eragindako egoeraren ondoriozko ezohiko garbiketen ondorioz aldatutako bi espediente izapidetu dira, 865.811 eta 627.858 eurorenak, hurrenez hurren, eta aldatutako espedienteen zati bat (236.130 eta 209.286 euro, hurrenez hurren) esleitu eta onartu aurretik egikaritu dira (D3 akatsa). Era berean, espediente horietako batean (13 zenbakia), ez da bermea egokitu, SPKLren 109.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera (D4 akatsa).
- LGSSrako garraio sanitarioaren zerbitzuaren espedientean (14 zenbakia), 3,7 milioi euroren zenbatekoa ordaindu da kontratuaren oreka ekonomikoari eusteagatik, Covid-19aren pandemiak esleipendunen plantillan eragindako lan-absentismoa handitu izanaren ondorioz. Zerbitzu-kontratua den aldetik, ez zaizkio aplikagarriak SPKLren 290. artikuluko aurreikuspenak, zerbitzu-emakidako kontratuei bakarrik aplikatzen baitzaizkie; hala ere, bazegoen beste aukera batzuk aplikatzea kontratuaren oreka ekonomiko berrezartzeko, bereziki “aurreikusi ezinezko arriskuaren” jurisprudentzia-doktrina (D5 akatsa).

### III.4.3 2021EAN ESLEITUTAKO ESPEDIENTEAK

- Segurtasun Sailarentzat inprimatzeko, kopiatzeko eta eskaneatzeko ekipoak alokairuan hornitu eta mantentzeko espedientean (24 zenbakia), 3,2 milioi euroan esleitutakoan, eskaintza ekonomikoari dagokion esleipen-irizpidean eskaintza ekonomiko baloratzeko unitate-prezio partzialak egotzitako haztapenak ez du erabakitzen kalitate-prezio erlazio onena duen eskaintzaren hautaketa (A2 akatsa). Gainera, 13,8 hilabeteko atzerapena izan da kontratua formalizatzeko orduan; izan ere, hasieran lizitatu bati esleitu zitzaion kontratua, eta hark hasierako eskaintza aldatu izanaren ondorioz, baztertu egin behar izan zen lizitatu hura, Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoren ebazpenaren arabera, SPKLren 138. eta 156. artikuluetan agindutako moduan; baita

ebazpen hori behar bezala ez betetzeagatik ere, beste errekurtsio bat aurkeztea eragin baitzuen (B2 akatsa).

- 6,8 milioi euroan esleitutako 4 espedientetan (20, 21, 31 eta 32 zenbakiak), kontratuak esleitzeko irizpide gisa kaudimen teknikokoak diren irizpideak erabili dira, SPKLren 88.1 eta 90. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, hala nola esleitutako baliabide materialak eta giza baliabideak eta, kasuren batean, kalitate-ziurtagiriak (A3 akatsa).
- Guztira 13,7 milioi euroan esleitutako 4 espedientetan (20, 21, 30 eta 32 zenbakiak), pleguetan aurreikusitako balizko aldaketa ez dator bat SPKLren 204. artikuluan xedatutakoarekin, ez baita argi, zehatz, zalantzarik gabe eta objektiboki formulatu (A4 akatsa).
- 17,2 milioi euroan esleitutako 4 espedientetan (29, 31, 32 eta 34 zenbakiak), balio zenbatetsiak ez du barne hartzen, luzapenen kalkuluan, pleguetan aurreikusitako aldaketen zenbatekoa (A5 akatsa).
- EAeko Administrazioa eta beste erakunde batzuk gas naturalez hornitzeko espedientean (23 zenbakia), 2,9 milioi euroan esleitutakoan, ez dago justifikatuta behin betiko bermea jartzetik salbuestea, SPKLren 107.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera (A6 akatsa).
- 19,6 milioi euroan esleitutako 2 espedientetan (22 eta 27 zenbakiak) pleguak aldatu dira, jarduketan atzeraeraginik gabe, SPKLren 122.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera (A7 akatsa).
- 2 espedientetan (24 eta 27 zenbakiak) onartutako aldaketak, 21,5 milioi euro guztira, kontratatzailearen profilean argitaratu ziren, baina ez EBAOn, SPKLren 207.3 artikulua agintzen duen moduan (A8 akatsa).
- Guztira 50,5 milioi euroan esleitutako 11 espedientetan (17, 18, 20, 21, 22, 24, 25, 28, 31, 32 eta 35 zenbakiak) gainditu egin da SPKLren 158. artikulua esleipenerako finkatutako gehieneko epea (B1 akatsa).
- Hezkuntza Sailaren publizitate-espazioak planifikatzeko eta erosteko espedientean (32 zenbakia), 1,4 milioi euroan esleitutakoan, ez da gehieneko aurrekontua berregokitu kontratua benetan gauzatzen hasteko dataren arabera, eta, horri esker, 198.333 euroren gastua gauzatu ahal izan da, dagokion aldaketa izapidetu beharrik gabe (C1 akatsa).
- Programatutako garraio sanitarioaren espedientea indarrean sartu arte (26 zenbakia), aurreko kontratuak luzatu egin ziren (2021eko maiatzera arte), eta ekitaldi horretan 2,4 milioi euro ordaindu ziren kontratuaren oreka ekonomikoari eusteko. Alabaina, ez dira aplikagarriak SPKLren 290. artikuluan kontratuaren oreka ekonomikoa berrezartzeko jasotako aurreikuspenak, zerbitzuen emakidarako kontratuei soilik aplikatu baitzaizkie (C2 akatsa).



Herri Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

#### III.4.4 KONTRATU TXIKIAK

- Guztira 995.260 milioi euroren zenbatekoan egindako ondasun eta zerbitzuen 93 eskuraketa berrikusi ditugu, honako sail hauek gauzatutakoak: Lehendakaritza (7), Kultura eta Hizkuntza Politika (40), Hezkuntza (30), berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politika (8), Segurtasuna(4), Osasuna (2) eta Merkataritza, Turismo eta Kontsumoa (2); guztiak ere zuzenean egin direla ikusi dugu, zenbatekoa dela-eta zegokion lizitazio-prozedura izapidetu beharrean, zeinak, gutxienez, ireki sinplifikatu laburtua izan beharko zukeen.
- 180 hirugarreni dagozkien 7,1 milioi euroren gastuak antzeman ditugu, zeinak kontratuaren xedearen homogeneousutasuna kontuan hartuta, batera izapidetu baitaitezke, ahalik eta konkurrentzia handiena bermatuko duten prozeduren bidez. Guztiak ere Hezkuntza Saileko obra txikiei dagozkie.
- 15 kontratu txiki izapidetzeko jarraitu den prozedura berrikusi dugu, SPKLren 118. artikulua aurreikusitakoari jarraikiz. Ikusi dugu 4tan ez dela erosketa egiteko beharra justifikatu, eta 15etan ez dagoela kontratuaren xedea ez aldatu izanari buruzko txosten arrazoiturik, kontratu txikiaren legezko atalaseak aplikatzea saihesteko.





#### IV. FINANTZAREN ANALISIA

Honako taula honek Aurrezki gordinak, Emaitza arruntak eta Aurrekontuko emaitzak azken lau ekitaldietan izan duten bilakaera erakusten du:

|  |                 |                 |                 |                 | Euroak, milioikotan |                 |
|--|-----------------|-----------------|-----------------|-----------------|---------------------|-----------------|
|  | 2018            | 2019            | 2020            | 2021            | 2021/2020           |                 |
|  |                 |                 |                 |                 | Aldea               | %               |
| <b>Sarrera korronteak (1)</b>                    | <b>10.275,3</b> | <b>10.686,5</b> | <b>10.111,0</b> | <b>12.218,2</b> | <b>2.107,2</b>      | <b>% 20,8</b>   |
| Zeharkako zergak.....                            | 4,1             | 4,1             | 2,4             | 3,1             | 0,7                 | % 29,2          |
| Tasak eta beste.....                             | 170,0           | 179,8           | 138,5           | 168,7           | 30,2                | % 21,8          |
| Transferentziak eta dirulag. korronteak.....     | 10.099,6        | 10.499,2        | 9.943,1         | 12.044,6        | 2.101,5             | % 21,1          |
| Ondare-sarrerak.....                             | 1,6             | 3,4             | 27,0            | 1,8             | (25,2)              | (% 93,3)        |
| <b>Gastu arruntak (2)</b>                        | <b>8.951,9</b>  | <b>9.349,6</b>  | <b>9.886,3</b>  | <b>10.764,4</b> | <b>878,1</b>        | <b>% 8,9</b>    |
| Pertsonaleko gastuak.....                        | 2.043,8         | 2.161,3         | 2.242,1         | 2.359,7         | 117,6               | % 5,2           |
| Funtzionamendu-gastuak.....                      | 3.524,5         | 3.702,1         | 3.958,3         | 4.226,2         | 267,9               | % 6,8           |
| Transferentziak eta dirulag. korronteak.....     | 3.383,6         | 3.486,2         | 3.685,9         | 4.178,5         | 492,6               | % 13,4          |
| <b>Aurrezki gordina (3=1-2)</b>                  | <b>1.323,4</b>  | <b>1.336,9</b>  | <b>224,7</b>    | <b>1.453,8</b>  | <b>1.229,1</b>      | <b>% 547,0</b>  |
| Gastu finantzarioak (4).....                     | 180,1           | 178,7           | 146,0           | 147,6           | 1,6                 | % 1,1           |
| <b>Emaitza korrontea (5=3-4)</b>                 | <b>1.143,3</b>  | <b>1.158,2</b>  | <b>78,7</b>     | <b>1.306,2</b>  | <b>1.227,5</b>      | <b>% 1559,7</b> |
| <b>Inbertsio garbiak (6)</b>                     | <b>828,6</b>    | <b>1.073,4</b>  | <b>942,3</b>    | <b>719,9</b>    | <b>(222,4)</b>      | <b>(% 23,6)</b> |
| Inbertsio errealak.....                          | 178,6           | 135,1           | 155,1           | 196,3           | 41,2                | % 26,6          |
| Kapital transf. eta dirulag.....                 | 694,3           | 701,5           | 685,0           | 751,6           | 66,6                | % 9,7           |
| Aktibo finantzarioen gehikuntza.....             | 97,6            | 314,0           | 220,7           | 190,0           | (30,7)              | (% 13,9)        |
| Inbertsio errealen besterentzea.....             | 12,1            | 0,1             | -               | 2,9             | 2,9                 | -               |
| Jasotako kapital transf. eta dirulaguntzak.....  | 106,4           | 56,4            | 69,9            | 341,6           | 271,7               | % 388,7         |
| Aktibo finantzarioen gutxitzea.....              | 23,4            | 20,7            | 48,6            | 73,5            | 24,9                | % 51,2          |
| <b>Jaulkitako zor garbia (7)</b>                 | <b>58,7</b>     | <b>(489,1)</b>  | <b>1.406,0</b>  | <b>497,0</b>    | <b>(909,0)</b>      | <b>(% 64,7)</b> |
| Pasibo finantzarioen gehikuntza.....             | 1.273,7         | 870,7           | 2.092,6         | 1.165,1         | (927,5)             | (% 44,3)        |
| Pasibo finantzarioen gutxitzea.....              | 1.215,0         | 1.359,8         | 686,6           | 668,1           | (18,5)              | (% 2,7)         |
| <b>Aurrekontu korrontearen emaitza (8=5-6+7)</b> | <b>373,4</b>    | <b>(404,3)</b>  | <b>542,4</b>    | <b>1.083,3</b>  | <b>540,9</b>        | <b>% 99,7</b>   |
| <b>Aurrekontu itxien emaitza (9)</b>             | <b>(3,9)</b>    | <b>2,9</b>      | <b>(2,1)</b>    | <b>(40,3)</b>   | <b>(38,2)</b>       | <b>% 1819,0</b> |
| <b>Ekitaldiko aurrekontu-emaitza (8+9)</b>       | <b>369,5</b>    | <b>(401,4)</b>  | <b>540,3</b>    | <b>1.043,0</b>  | <b>502,7</b>        | <b>% 93,0</b>   |

Sarrera korronteak nabarmen gehitu dira aurreko ekitaldiaren aldean (% 20,8) eta gastu arruntak, berriz, gutxiago igo dira (% 8,9); horrek guztiak 1.453,8 milioi euroren aurrezki gordina sortu du, hau da, % 547 gehitu dira 2020an eskuratutakoaren aldean.

Diru-sarrera korronteak 2.107,2 milioi euroan gehitzea, funtsean, bi arrazoiengatik gertatu da. Alde batetik, foru aldundiek aurreko ekitaldian baino 1.612 milioi euro gehiago eman dituztelako, zerga itunduen bilketa % 14,4 gehitu delako. Bestetik, Estatuko Administrazio Orokorretik jasotako transferentzia arruntak 459,7 milioi euro igo direlako. Azken igoera hori gertatu da, batez ere, gora egin dutelako Covid-19aren Ezohiko Funtseko laguntzek (58,9) eta EGFtik datozen diru-sarrerak (94,7), eta autonomoi eta Covid lineako enpresei (95,2) zuzeneko laguntzak emateko transferentzia berriak jaso direlako; baita, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoko (176) funtsak jaso direlako ere.



Gastu arruntak 878,1 milioi euro handitu dira, batez ere, ordainsariek eta kontratazioek gora egin dutelako (73,1) eta gizarte-kotizazioak eta gizarte-aurreikuspeneko erakundeetarako ekarpenak gehitu direlako (44,4), osasun-zerbitzuek gora egin dutelako (214,3), kanpo-zerbitzuetako gastua handitu delako (50,4) eta foru-aldundietarako (233,4) eta sektore pribaturako transferentziak igo direlako (170,3).


2021eko ekitaldian, “Covid-19ak eragindako krisiaren aurkako neurriak” izeneko aurrekontu-programari eutsi zaio. Programa hori 2020ko ekitaldian sortu zen, eta pandemiaren ondoriozko edo hari lotutako gastuak hobeto kontrolatzeko helburua zuen. Ekitaldi itxieran, aipatutako programaren kontura gauzatutako gastua 511 milioi euro izan zen eta datozen ekitaldietarako 73,6 milioi euroren gastua konprometitu da; honela, bada, aurreko ekitaldiaren aldean 91,9 milioi euroren igoera izan du gastu aitortuak, batik bat 2021ean autonomoei eta enpresei emandako laguntza berri zuzenen ondorioz.

Inbertsio garbiak 719,9 milioi eurorenak dira, hau da, aurreko ekitaldian baino 222,4 milioi euro gutxiago. Nahiz inbertsioetako gastua 77,1 milioi euro handitu den 2020an izandakoaren aldean, inbertsio garbiak behera egin izana kapital-eragiketengatiko diru-sarrerren gorakadaren ondorio da, 299,5 milioi eurorena izan baita. Diru-sarrera horien igoera, batez ere, BEMetik jasotako kapital-transferentzia berriek (168,3) eta 2014-2020 programa eragileari dagozkion FEDERen diru-sarrerren igoerak (110,9) eragin dute.

Ekitaldiko emaitza arrunta aski izan da inbertsio garbia finantzatzeko. Nolanahi den ere, zorpetzea areagotu da 497 milioi euroan eta horrek eragin du 2021eko ekitaldiko aurrekontu-saldoak 1.043 milioi euroren superabita izatea.

Hona hemen adierazle nagusien bilakaera grafikoan jasota:

AURREZKI GORDINA, INBERTSIO GARBIA ETA JAULKITAKO ZOR GARBIA



Azken lau ekitaldietan, diruzaintza geldikinaren eta formalizatutako zorpetzearen bilakaera honako hau izan da:

|  | Euroak, milioikotan |         |          |          |                        |
|--|---------------------|---------|----------|----------|------------------------|
|  | 2018                | 2019    | 2020     | 2021     | Bariazioa<br>2021/2020 |
| <b>DIRUZAINZTA GELDIKINAREN BILAKAERA</b>      |                     |         |          |          |                        |
| Diruzaintza geldikina                          | 1.098,0             | 696,6   | 1.236,9  | 2.279,9  | 1.043,0                |
| Zuzkidurak eta doikuntzak.....                 | 146,2               | 162,4   | 164,2    | 403,3    | 239,1                  |
| Diruzaintzako geldikin erabilgarria            | 951,8               | 534,2   | 1.072,7  | 1.876,6  | 803,9                  |
| <b>ZORPETZEAREN BILAKAERA</b>                  |                     |         |          |          |                        |
| Erabilitako zorra (balio nominala 12.31n)..... | 9.136,8             | 8.647,0 | 10.063,9 | 10.595,8 | 531,9                  |

Diruzaintza geldikina 1.043 milioi euro gehitu da eta horri gehitzen badiogu zuzkidurak eta doikuntzak 239,1 milioi euro gehitu izana, guztiak ere ekitaldi itxieran diruzaintza geldikin erabilgarria 803,9 milioi euro gehitzea eragin du.

Balio nominalarekin formalizatu eta erabilitako zorrak 531,9 milioi euro egin du gora eta 2021eko ekitaldi itxieran 10.595,8 milioi euroren zenbatekoa egin du.



Herri Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## AURREKONTUAREN EGONKORTASUN ETA FINANTZAREN IRAUNKORTASUN HELBURUEN JARRAIPENA

AEFILOk arautzen ditu Administrazio publikoen aurrekontu egonkortasunari eta finantza iraunkortasunari buruzko alderdiak. Azken xedapenetako hirugarrenak ezartzen du, lege honetan xedatutakoa EAERI aplikatzeak ez duela eragotziko Ekonomia Itunari buruzko 12/2002 Legean xedatutakoa, zeinak 48. artikuluan Estatuarekin koordinazioa eta lankidetzaz aurreikusten baitu aurrekontu-egonkortasunaren arloan, eta 62. artikuluan ezartzen baitu, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren eginkizunen artean, aurrekontu-egonkortasunaren arloko lankidetzaz- eta koordinazio-konpromisoak adostea.

2020ko martxoaren 11ko Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren erabaki bitartez, aurrekontuaren egonkortasun eta zor publikoaren helburuak zehaztu ziren 2020-2023 aldirako. Erabaki hori Ministro Kontseiluak 2020ko otsailaren 11n adostutako aurrekontu-egonkortasunaren ildoaren baitan zehaztutako aurreikuspen makroekonomikoak eta defizitaren eta zor publikoaren ildoak oinarri hartuta gauzatu zen eta horren bidez, 2021-2023 aldian administrazio publiko guztientzat aplikatu beharreko egonkortasunaren, zor publikoaren eta gastuaren arauaren helburuak finkatu ziren.

Covid-19aren pandemiak eragindako krisiaren ondorioz, 2020ko irailaren 30ean, EAEko Administrazio Orokorrak eta Estatuko Administrazio Orokorrak ezarritako helburuak berrikustea adostu zuten, hasiera batean hitzartutako egoera betetzea ezinezkoa zelako. 2021eko ekitaldirako, aurrekontuaren egonkortasun helburua defizitaren % 2,2an ezarri zen eta zor publikoarena % 16,9an, biak ere Barne Produktu Gordinaren gainean kalkulaturik. Gastu-araua, berriz, ez zen aldatu, eta 2021eko ekitaldirako gastuaren gehieneko igoera aurrekoaren aldean % 3koa izango da, ekonomiaren erreferentziazko hazkunde-tasaren kalkularen arabera. Erabaki hori berretsi zen Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak 2020ko irailaren 30ean egindako bileran.

Gerora, Ministro Kontseiluaren 2020ko urriaren 6ko Erabakiaren bidez, Diputatuen Kongresuari eskatu zitzaion ezohiko larrialdi-egoera aintzat hartu zezala, Konstituzioaren 135.4 artikuluan eta AEFILOren 11.3 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, eta Ministro Kontseiluaren 2020ko otsailaren 11ko erabakia, lehen aipatutakoa, bertan behera utzi zuen. Ondorioz, 2021eko ekitaldiari dagokionez ez da aplikagarria aipatutako helburuak betetzea eta erreferentzia soil modura hartu behar dira.

Ildo horretan, Ogasun Ministerioak 2022ko azaroan egindako aurrekontu-egonkortasunaren, zor publikoaren eta gastu-arauaren helburuen jarraipen-txostenak, AEFILOren 17. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, 2021eko ekitaldiari dagokionez, aurreko adierazleen neurketan eskuratutako datuak baizik ez ditu erakusten. EAERI dagozkion datuak honako hauek dira:

|   | BPGaren g. %          |
|---|-----------------------|
| Aurrekontuaren egonkortasuna: Finantzaketarako gaitasuna (superabita) | 0,9                   |
| Zor publikoa  | 15,6                  |
|   | 2020ko gastuaren g. % |
| Gastuaren araua   | 10,9                  |



Herri Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## V. 2021EKO EKITALDIKO KONTUAK 2021EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

| AURREKONTU KORRONTEA                             |                    |                |                      |                       |                 |                 | Euroak, milioikotan |
|--|--------------------|----------------|----------------------|-----------------------|-----------------|-----------------|---------------------|
| SARRERAK<br>KAPITULUA                            | HASIER.<br>AURREK. | ALDAK.         | B. BETIKO<br>AURREK. | ESKUBIDE<br>AITORTUAK | KOBRATUA        | KOBRATU<br>GABE |                     |
| 2. Zeharkako zergak .....                        | 3,1                | -              | 3,1                  | 3,1                   | 2,1             | 1,0             |                     |
| 3. Tasak eta bestelako sarrerak (A.8) .....      | 66,7               | 72,7           | 139,4                | 168,7                 | 145,6           | 23,1            |                     |
| 4. Transf. eta dirul. korron. (A.9) .....        | 9.710,0            | 517,7          | 10.227,7             | 12.044,6              | 11.749,0        | 295,6           |                     |
| 5. Ondare-sarrerak .....                         | 1,2                | 0,1            | 1,3                  | 1,8                   | 1,8             | -               |                     |
| 6. Inbertsio errealen besterentzea .....         | -                  | -              | -                    | 2,9                   | 2,9             | -               |                     |
| 7. Kapitalezko dirulag. eta transf. (A.10) ..... | 96,5               | 178,3          | 274,8                | 341,6                 | 325,2           | 16,4            |                     |
| 8. Aktibo finantzarioen gutxitzea (A.11) .....   | 12,5               | 406,9          | 419,4                | 73,5                  | 70,6            | 2,9             |                     |
| 9. Pasibo finantzarioen gehikuntza (A.15) .....  | 2.552,4            | -              | 2.552,4              | 1.165,1               | 1.165,1         | -               |                     |
| <b>GUZTIRA</b>                                   | <b>12.442,4</b>    | <b>1.175,7</b> | <b>13.618,1</b>      | <b>13.801,3</b>       | <b>13.462,3</b> | <b>339,0</b>    |                     |

| GASTUAK   |                    |                |                      |                       |                      |              | Euroak, milioikotan |
|---|--------------------|----------------|----------------------|-----------------------|----------------------|--------------|---------------------|
| KAPITULUA                                       | HASIER.<br>AURREK. | ALDAK.         | B. BETIKO<br>AURREK. | OBLIGAZ.<br>AITORTUAK | ORDAINDU<br>ORDAIND. | GABE         |                     |
| 1. Pertsonaleko gastuak (A.3) .....             | 2.363,8            | 27,2           | 2.391,0              | 2.359,7               | 2.359,6              | 0,1          |                     |
| 2. Funtzionamendu gastuak (A.4) .....           | 4.176,8            | 153,5          | 4.330,3              | 4.226,2               | 3.878,0              | 348,2        |                     |
| 3. Gastu finantzarioak (A.15) .....             | 215,5              | (63,5)         | 152,0                | 147,6                 | 147,6                | -            |                     |
| 4. Transf. eta dirulag. korronteak (A.5) .....  | 3.848,0            | 536,1          | 4.384,1              | 4.178,5               | 3.782,4              | 396,1        |                     |
| 6. Inbertsio errealak (A.6) .....               | 247,8              | 86,7           | 334,5                | 196,3                 | 157,8                | 38,5         |                     |
| 7. Kapitalezko dirulag. eta transf. (A.5) ..... | 770,4              | 276,8          | 1.047,2              | 751,6                 | 556,8                | 194,8        |                     |
| 8. Aktibo finantzarioen gehikuntza (A.7) .....  | 52,0               | 158,9          | 210,9                | 190,0                 | 190,0                | -            |                     |
| 9. Pasibo finantzarioen gutxitzea (A.15) .....  | 768,1              | -              | 768,1                | 668,1                 | 668,1                | -            |                     |
| <b>GUZTIRA</b>                                  | <b>12.442,4</b>    | <b>1.175,7</b> | <b>13.618,1</b>      | <b>12.718,0</b>       | <b>11.740,3</b>      | <b>977,7</b> |                     |

| AURREKONTU ITXIAK (A.12) |                    |                    |           |                    | Euroak, milioikotan |
|--------------------------|--------------------|--------------------|-----------|--------------------|---------------------|
|                          | ZORRA<br>20.12.31N | KOBR./<br>ORDAINK. | BALIOGAB. | ZORRA<br>21.12.31N |                     |
| Diru-sarrerak .....      | 689,2              | 535,8              | 47,1      | 106,3              |                     |
| Gastuak .....            | 902,0              | 825,5              | 6,8       | 69,7               |                     |

| KREDITU KONPROMETITUAK (A.17)                          |               |              |                | Euroak, milioikotan |
|--|---------------|--------------|----------------|---------------------|
| KAPITULUA  | HASIERA URTEA |              |                |                     |
|  | AURREKO URT.  | 2021         | GUZTIRA        |                     |
| 2. Funtzionamendu-gastuak .....                        | 122,8         | 261,5        | 384,3          |                     |
| 4. Transferentziak eta dirulaguntza korronteak .....   | 73,6          | 166,5        | 240,1          |                     |
| 6. Inbertsio errealak .....                            | 28,9          | 54,4         | 83,3           |                     |
| 7. Kapitalezko transferentziak eta dirulaguntzak ..... | 173,8         | 376,3        | 550,1          |                     |
| 8. Aktibo finantzarioen gehikuntza .....               | 161,3         | 27,6         | 188,9          |                     |
| <b>GUZTIRA</b>   | <b>560,4</b>  | <b>886,3</b> | <b>1.446,7</b> |                     |



Herri Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## 2021EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOARI BURUZKO OHARRAK

1. **oharra.** EAren Administrazioari diruz lagungarri diren gastuak dirulaguntzak ematen diren unean erregistratzen dira, eta aplikatuko zaien aurrekontu erregimena aurre egin beharreko ordainketei edota dirulaguntza edo laguntzaren baldintzak egiaz betetzeari dagokionez egokien diren kreditu motaren arabera izango da, ordainketazkoa edo konpromisozkoa, Euskadiko Aurrekontu Erregimenari buruzko Legeak ezarritako irizpideari jarraikiz. Irizpide horren ondorioz, 2021eko abenduaren 31n badira oraindik eskagarriak ez diren ordainketa-obligazioak, 67,7 milioi euroren zenbatekodunak.
2. **oharra.** 2021eko abenduaren 31 arte jasotako funts komunitarioetatik zati bat, 899,8 milioi euro Europar Batasunak ikuskatu ditzake, eta ezinezkoa da zehaztea finantzaturako proiektuen berrikuspenak diruzaintza geldikinarene gainean izan dezakeen eragina. Nolanahi ere, iragan esperientzia oinarri hartuta, ez dirudi eragin hori adierazgarria izango denik.
3. **oharra.** Zorpetze publikoari dagozkion sortutako eta iraungi gabeko interesak (76,1 milioi euro) urteko kontuetan erregistratzen dira eta ondarearen emaitza ekonomikoaren zati dira. Aurrekontuaren egikaritzak ez du zenbateko hori islatzen, izan ere, interesen gastuak kutxa irizpideari jarraikiz erregistratzen baititu.
4. **oharra.** Bizkaiko Garraio Partzuergoaren finantza planak, Bilboko Hiri Trenbidearen inbertsioei buruzkoak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorrek 2022tik 2027ra bitarteko urteetan 202,5 milioi euroren ekarpena egitea aurreikusten du, urte horietako EAren Aurrekontu Orokorretan jasoko direnak, Partzuergoari ekitaldi bakoitzean egin beharreko transferentziari dagokion kopuruan.

| ZORPETZEA  | Euroak, milioikotan |
|--|---------------------|
| <b>SALDOA 20.12.31n</b>                          | <b>10.063,9</b>     |
| Zorra jaulkitzea (balio nominala).....           | 1.200,0             |
| Amortizazioa.....                                | 668,1               |
| <b>SALDOA 21.12.31-N (Balio nominala) (A.15)</b> | <b>10.595,8</b>     |

| 2021EKO EMAITZA ETA DIRUZAINZAKO GELDIKINA 2021-12-31N | Euroak, milioikotan |
|--|---------------------|
| Diruzaintza Geldikina 20.12.31n.....                   | 1.236,9             |
| 2021eko ekitaldiko aurrekontu emaitza .....            | 1.043,0             |
| Aurrekontu korrontearen emaitza.....                   | 1.083,3             |
| Aurreko ekitaldietako eragiketen emaitza (A.12) .....  | (40,3)              |
| <b>DIRUZAINZTA GELDIKINA 21.12.31N</b>                 | <b>2.279,9</b>      |

| DIRUZAINZTA GELDIKINAREN GAUZATZEA 2021-12-31N               | Euroak, milioikotan |
|--|---------------------|
| <b>DIRUZAINZTA (A.13)</b>                                    | <b>4.587,0</b>      |
| <b>KOBRAZTEKOA</b>   | <b>490,7</b>        |
| Indarrean den ekitalditik kobratzeke dauden eskubideak ..... | 339,0               |
| Itxitako ekitaldietatik kobratzeke dauden eskubideak .....   | 106,3               |
| Zordunen aurrekontuz kanpoko saldoak (A.14).....             | 45,4                |
| <b>ORDAINTZEKOA</b>  | <b>(2.797,8)</b>    |
| Indarrean den ekitaldiko ordaintzeke dauden obligazioak..... | (977,7)             |
| Itxitako ekitaldietako ordaintzeke dauden obligazioak .....  | (69,7)              |
| Hartzekodunen aurrekontuz kanpoko saldoak (A.14) .....       | (1.750,4)           |
| <b>DIRUZAINZTA GELDIKINA 21.12.31N</b>                       | <b>2.279,9</b>      |



Herri Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

| DIRUZAINZAKO GELDIKIN ERABILGARRIA 21-12-31N                 |  | Euroak, milioikotan |
|--|--|---------------------|
| Diruzaintza Geldikina 21.12.31n.....                         |  | 2.279,9             |
| Atxikitako geldikina:  |  |                     |
| Ikastetxe publikoetarako geldikina .....                     |  | (86,3)              |
| Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa.....             |  | (241,4)             |
| Zalantza-zako kobrantza-zako eskubideak:                     |  |                     |
| Bestelako eskubide aitortuak .....                           |  | (31,2)              |
| Diru-bilketa, betearazte bidean.....                         |  | (23,9)              |
| Exekutatu-tako abalek eragindako erreklamazioak (A.16) ..... |  | (20,5)              |
| <b>DIRUZAINZAKO GELDIKIN ERABILGARRIA 21-12-31N</b>          |  | <b>1.876,6</b>      |

## URTEKO KONTUAK

| BALANTZEA                                      |                 |                | Euroak, milioikotan                           |                  |                  |
|--|-----------------|----------------|---|------------------|------------------|
| AKTIBOA  | 2021            | 2020           | ONDARE GARBIA ETA PASIBOA                     | 2021             | 2020             |
| <b>AKTIBO EZ-KORRONTEA</b>                     | <b>5.193,5</b>  | <b>4.947,9</b> | <b>ONDARE GARBIA</b>                          | <b>(3.270,2)</b> | <b>(4.097,9)</b> |
| lbilgetu ukiezina .....                        | 53,3            | 52,0           | Sortutako ondarea .....                       | (3.547,8)        | (4.296,9)        |
| lbilgetu materiala .....                       | 2.876,6         | 2.737,9        | Aurreko ekitaldietako emaitzak.....           | (4.296,9)        | (3.571,6)        |
| Epe luz. finantza inb., taldeko erak.....      | 2.032,7         | 1.870,9        | Ekitaldiko emaitzak .....                     | 749,1            | (725,3)          |
| Epe luz. finantza inbertsioak .....            | 160,6           | 183,6          | Bst. ondare igoerak, emaitz. egozteke.....    | 277,6            | 199,0            |
| Zord. eta kobratz. bst. knt. btz. epe luz. ... | 70,3            | 103,5          | <b>PASIBO EZ-KORRONTEA</b>                    | <b>10.593,9</b>  | <b>10.095,4</b>  |
| <b>AKTIBO KORRONTEA</b>                        | <b>5.082,1</b>  | <b>3.215,5</b> | Epe luz. zuzkidurak .....                     | 21,8             | 27,3             |
| lzakinak .....                                 | 80,0            | 45,3           | E/luzeko zorrak .....                         | 10.531,3         | 10.029,3         |
| Zordunak eta kobr. bst. knt. b.....            | 413,8           | 737,5          | Hartzek. eta ordain. bst. knt b. epe luz..... | 40,8             | 38,8             |
| Epe motz. finantza inbertsioak .....           | 1,3             | 9,5            | <b>PASIBO KORRONTEA</b>                       | <b>2.951,9</b>   | <b>2.165,9</b>   |
| Eskud. & b. aktibo likido baliok. batz. ....   | 4.587,0         | 2.423,2        | Zorrak epe lab.....                           | 246,4            | 237,6            |
|  |                 |                | Taldeko erakund. zorrak, epe lab. ....        | 1.288,2          | 780,6            |
|  |                 |                | Hartzek. eta ordain. bst kontu b. ....        | 1.417,3          | 1.147,7          |
| <b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>                        | <b>10.275,6</b> | <b>8.163,4</b> | <b>ONDARE GARBIA ETA PASIB., GUZTIRA</b>      | <b>10.275,6</b>  | <b>8.163,4</b>   |



Herri Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

| ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA  | Euroak, milioikotan |                   |
|--|---------------------|-------------------|
|  | 2021                | 2020              |
| Zerga-sarrerak .....   | 12,4                | 13,1              |
| Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak .....   | 12.355,1            | 9.969,3           |
| Salmenta garbiak eta zerbitzu ematea .....   | 18,8                | 37,6              |
| Amaitutako eta fabrikazioan dauden produktuen izakinen bariazioa eta balioaren narriadura.....         | 36,0                | 27,6              |
| Kudeaketa korronteko beste sarrera b. ....   | 122,6               | 88,2              |
| Hornidura soberakinak .....  | 8,8                 | 6,6               |
| <b>KUDEAKETA KORRONTEKO SARRERAK GUZTIRA</b>   | <b>12.553,7</b>     | <b>10.142,4</b>   |
| Pertsonaleko gastuak .....   | (2.359,7)           | (2.242,1)         |
| Transferentziak eta emandako dirulaguntzak .....   | (4.925,5)           | (4.361,9)         |
| Hornidurak .....   | (37,7)              | (48,3)            |
| Kudeaketa korronteko bst gstu batz. ....   | (4.212,0)           | (3.937,5)         |
| Ibilgetua amortizatzea .....   | (98,4)              | (100,4)           |
| <b>KUDEAKETA KORRONTEKO GASTUAK GUZTIRA</b>  | <b>(11.633,3)</b>   | <b>(10.690,2)</b> |
| <b>KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA: AURREZKIA (AURREZKI-EZA)</b>  | <b>920,4</b>        | <b>(547,8)</b>    |
| Balio narriadura eta ibilgetu ez finantzarioa besterenganatzeagatik emaitzak eta aktiboak salgai ..... | 1,9                 | (2,6)             |
| Arruntak ez diren beste kontu sail batzuk .....  | (5,9)               | (14,0)            |
| <b>ERAGIKETA EZ-FINANZARIOEN EMAITZAK</b>  | <b>916,4</b>        | <b>(564,4)</b>    |
| Sarrera finantzarioak .....  | 10,5                | 34,5              |
| Gastu finantzarioak .....  | (142,9)             | (149,2)           |
| Balioaren narriadura, bajak eta finantza-aktibo eta -pasiboen besterentzeak .....                      | (34,9)              | (46,2)            |
| <b>ERAGIKETA FINANZARIOEN EMAITZAK</b>   | <b>(167,3)</b>      | <b>(160,9)</b>    |
| <b>EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA: AURREZKIA (AURREZKI-EZA)</b>   | <b>749,1</b>        | <b>(725,3)</b>    |

## ONDARE GARBIA ALDAKETEN EGOERA

| 1.- ONDARE GARBIA ALDAKETEN EGOERA GUZTIRA            | Euroak, milioikotan  |                                 |                  |
|---|----------------------|---------------------------------|------------------|
|   | SORTUTAKO<br>ONDAREA | ONDAREKO BESTE<br>IGOERA BATZUK | GUZTIRA          |
| <b>ONDARE GARBIA, 2020KO EKITALDIAREN BUKAERAN</b>    | <b>(4.296,9)</b>     | <b>199,1</b>                    | <b>(4.097,8)</b> |
| <b>2021EKO EKITALDIKO ONDARE GARBIAREN BARIAZIOAK</b> | <b>749,1</b>         | <b>78,5</b>                     | <b>827,6</b>     |
| Ekitaldian aitortutako sarrera eta gastuak .....      | 749,1                | 78,5                            | 827,6            |
| <b>ONDARE GARBIA, 2021EKO EKITALDIAREN BUKAERAN</b>   | <b>(3.547,8)</b>     | <b>277,6</b>                    | <b>(3.270,2)</b> |

## 2.- AITORTUTAKO SARREREN ETA GASTUEN EGOERA

|   | Euroak, milioikotan |                |
|---|---------------------|----------------|
|   | 2021                | 2020           |
| <b>EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA AURREZKIA (AURREZKI-EZA)</b>                               | <b>749,1</b>        | <b>(725,3)</b> |
| Ondare garbian zuzenean jasotako aitortutako sarrerak eta gastuak                         |                     |                |
| Bestelako ondare sarrerak .....   | 83,1                | 13,4           |
| Ondare emaitza ekonomikoaren kontura edo kontu sailaren hasierako baliora transferentziak |                     |                |
| Bestelako ondare gehikuntzak .....  | (4,6)               | (4,4)          |
| <b>DIRU-SARRERA ETA GASTU AITORTUAK GUZTIRA</b>   | <b>827,6</b>        | <b>(716,3)</b> |






Herri Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

| DIRU FLUXUEN EGOERA-ORRIA   | Euroak, milioikotan |                 |
|---|---------------------|-----------------|
|   | 2021                | 2020            |
| <b>KUDEAKETA JARDUERETAKO ESKUDIRU FLUXU GARBIAK</b>  |                     |                 |
| <b>Kobrantzak</b>   | <b>12.758,8</b>     | <b>10.183,0</b> |
| Zerga-sarrerak.....   | 11,7                | 14,3            |
| Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak.....   | 12.595,4            | 10.051,7        |
| Salmenta garbiak eta zerbitzu emateak.....  | 17,0                | 16,8            |
| Interesak eta dibidendu kobratuak.....  | 3,9                 | 3,7             |
| Bestelako kobrantzak.....   | 130,8               | 96,5            |
| <b>Ordainketak</b>  | <b>11.534,8</b>     | <b>10.721,0</b> |
| Pertsonaleko gastuak.....   | 2.342,2             | 2.219,2         |
| Transferentziak eta emandako dirulaguntzak.....   | 4.807,6             | 4.336,4         |
| Hornidurak.....   | 51,6                | 38,1            |
| Bestelako kudeaketa gastuak.....  | 4.170,2             | 3.961,3         |
| Ordaindutako interesak.....   | 143,4               | 141,6           |
| Beste ordainketa batzuk.....  | 19,8                | 24,4            |
| <b>Aurrekontukoak ez diren beste kobrantza eta ordainketa batzuk</b>                                      | <b>178,9</b>        | <b>-</b>        |
| <b>Kudeaketa jardueretako eskudiru fluxu garbiak</b>  | <b>1.402,9</b>      | <b>(538,0)</b>  |
| <b>INBERTSIO JARDUERETAKO ESKUDIRU FLUXU GARBIAK</b>  |                     |                 |
| <b>Kobrantzak</b>   | <b>126,6</b>        | <b>99,2</b>     |
| Inbertsio errealeen salmenta.....   | 3,1                 | 0,3             |
| Aktibo finantzarioen salmenta.....  | 72,2                | 69,4            |
| Inbertsio jardueretako beste kobrantza batzuk.....  | 51,3                | 29,5            |
| <b>Ordainketak</b>  | <b>370,3</b>        | <b>346,8</b>    |
| Inbertsio errealeen erosketa.....   | 154,5               | 103,0           |
| Aktibo finantzarioen erosketa.....  | 190,1               | 220,7           |
| Inbertsio jardueretako beste ordainketa batzuk.....   | 25,7                | 23,1            |
| <b>Inbertsio jardueretako eskudiru fluxu garbiak</b>  | <b>(243,7)</b>      | <b>(247,6)</b>  |
| <b>FINANTZAKETA JARDUERETAKO ESKUDIRU FLUXU GARBIAK</b>   |                     |                 |
| <b>Finantza-pasiboak jaulkitzeagatiko kobrantzak</b>  | <b>1.638,0</b>      | <b>3.476,3</b>  |
| Obligazioak eta beste balio negoziagarri batzuk.....  | 1.165,1             | 1.722,6         |
| Jasotako maileguak.....   | 472,9               | 1.753,7         |
| <b>Finantza-pasiboak itzultzeagatiko ordainketak</b>  | <b>668,1</b>        | <b>2.016,6</b>  |
| Obligazioak eta beste balio negoziagarri batzuk.....  | 313,5               | 81,3            |
| Jasotako maileguak.....   | 354,6               | 1.935,3         |
| <b>Finantzaketa jardueretako eskudiru fluxu garbiak</b>   | <b>969,9</b>        | <b>1.459,7</b>  |
| <b>ERAKUNDE AUTONOMOEKIKO ZORREN BARIAZIOA</b>  | <b>34,7</b>         | <b>92,8</b>     |
| <b>ESKUDIRUAREN GEHIKUNTZA EDO MURRIZKETA GARBIA ETA<br/>ESKUDIRUAREN BALIOKIDE DIREN AKTIBO LIKIDOAK</b> | <b>2.163,8</b>      | <b>766,9</b>    |
| Eskudirua eta eskudiruaren baliokide diren aktibo likidoak ekit. hasieran                                 | 2.423,2             | 1.656,3         |
| Eskudirua eta eskudiruaren baliokide diren aktibo likidoak ekit amaieran                                  | 4.587,0             | 2.423,2         |



## ERANSKINAK

### A.1 ARAUDI APLIKAGARRIA

Hona hemen 2021ean EA Eren Administrazio orokorraren aurrekontuen ekonomia kudeaketan eta likidazioan eragina duten arau nagusiak:

- 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
- 8/1996 Legea, 1996ko azaroaren 8koa, Euskal Autonomia Erkidegoko finantzei buruzkoa.
- 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, 1/1997 Legegintzako Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-ogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena.
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- Martxoaren 23ko 2/2007 Legea, Baliabideen banaketarako eta foru aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko Metodologiari buruzkoak, 2007-2011 aldiari ezargarri zaiona.
- 2/2007 Legegintzako Dekretua, 2007ko azaroaren 6koa, Euskadiko Ondarearen Legearen testu bategina onesten duena.
- 1/2011 Legegintzako Dekretua, maiatzaren 24koa, Euskadiko aurrekontu araubidearen gaitan indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina onartu eta EA Eren Fundazio eta Partzuergoei ezargarria zaien aurrekontuko araubidea arautzen duena.
- 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onesten duena.
- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontuaren Egonkortasunari eta Finantzaren Iraunkortasunari buruzkoa
- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onesten duena.
- 2/2017 Legegintzako Dekretua, urriaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen Testu Bategina onesten duena.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora.
- 1/2021 Legea, otsailaren 11koa, 2021eko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorra onartzen dituen.

Aurkeztutako kontuetan sartuta daude kontu ematearen prozesua arautzen duen Euskadiko Aurrekontu Araubidearen testu bateginaren legegintzako dekretuko 124. artikuluan zehaztutako informazioa eta egoerak:

- Ekitaldiko emaitzak: aurrekontu arruntaren eta aurreko ekitaldietako eragiketengatiko superabita edo defizita.
- Ekitaldiko diruzaintzako kontua.
- Ekitaldiko likidazioko kontua.



Herri Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

- Programatutako aurrekontu helburuen betetze mailaren oroitidazkia.

Gainera, Jaurilaritzak 2021eko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak aurkeztu ditu. Hor sartuta daude balantzea, ondare emaitza ekonomikoaren kontua, ondare garbian egindako aldaketen egoera-orria, eskudiru fluxuen egoera-orria, eta oroitidazkia, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2012ko ekainaren 25eko aginduz onetsitako EAEKPP planean ezarritakoari jarraituz.

## A.2 AURREKONTUKO ALDAKETAK

Hona hemen 2021eko ekitaldian egindako aurrekontu-kredituen aldaketen xehakapena:

| GASTUEN AURREKONTUKO KREDITUEN ALDAKETAK         |                   |                |                   |                  |                   |                          | Euroak, milioikotan |                 |
|--|-------------------|----------------|-------------------|------------------|-------------------|--------------------------|---------------------|-----------------|
| KAPITULUA  | ZABAL-<br>KUNTZAK | GAI-<br>KUNTZ. | GELDIK.<br>GEHIK. | HITZAR-<br>MENAK | ESKUM.<br>BERRIAK | TRANSFERENTZ.<br>NORAKOA | JATOR.              | ALDAK.<br>GUZT. |
| 1. Pertsonaleko gastuak.....                     | -                 | 0,9            | -                 | -                | 8,8               | 103,2                    | (85,7)              | 27,2            |
| 2. Funtzionamendu-gastuak .....                  | -                 | 74,5           | -                 | -                | 2,6               | 280,6                    | (204,2)             | 153,5           |
| 3. Gastu finantzarioak .....                     | -                 | -              | -                 | -                | -                 | 0,5                      | (64,0)              | (63,5)          |
| 4. Transferentziak eta dirulag. korronteak ..... | -                 | 254,7          | 25,8              | 95,2             | 2,0               | 321,9                    | (163,5)             | 536,1           |
| 6. Inbertsio errealak.....                       | 345,5             | 310,6          | 2,9               | -                | 4,2               | 336,0                    | (912,5)             | 86,7            |
| 7. Kapital transf. eta dirulag.....              | -                 | 15,3           | 32,6              | -                | 0,1               | 346,1                    | (117,3)             | 276,8           |
| 8. Aktibo finantzarioen gehikuntza .....         | -                 | -              | -                 | -                | -                 | 164,7                    | (5,8)               | 158,9           |
| <b>GUZTIRA</b>                                   | <b>345,5</b>      | <b>656,0</b>   | <b>61,3</b>       | <b>95,2</b>      | <b>17,7</b>       | <b>1.553,0</b>           | <b>(1.553,0)</b>    | <b>1.175,7</b>  |
| %, hasierako aurrekontuaren gainean              | % 2,8             | % 5,3          | % 0,5             | % 0,8            | % 0,1             | % 12,5                   | (% 12,5)            | % 9,5           |

Ekitaldian 345,5 milioi euroan egindako kreditu zabalkuntzak eta 61,3 milioi euroren kredituen gehikuntza Diruzaintzako Geldikinen kontura finantzatu dira. Zabalkuntzen norako esanguratsuen artean, honako hauek dira aipagarrienak: 2021eko Inbertsioen Ezohiko Plana (106), eskualde kaltetuak berrabiarazteko Plana (61,8), erabilera judizialerako eraikin bat erostea (41) eta Alokabide S.A. sozietate publikoari (30) eta FEIri (50) egindako ekarpenak (ikus A.7).

Ekitaldian izandako kreditu gaikuntzak honako sarrera hauei dagozkie:

| GAIKUNTZAK   | Euroak, milioikotan |
|--|---------------------|
| Erresist. eta Erresilien. mekanismotik jasotako funtsak.....           | 342,0               |
| Covid-19 krisiald. finantz. gehigarria (684/2021 Errege Dekretua)..... | 188,1               |
| Finantza autonomia duten ikastetxeak.....                              | 74,8                |
| Europar Batasunetik jasotako sarrerak .....                            | 43,3                |
| Beste batzuk .....   | 7,8                 |
| <b>GUZTIRA</b>   | <b>656,0</b>        |

Hitzarmenen erregimenean jasotako aldaketak 95,2 milioi eurorenak dira, eta martxoaren 12ko 5/2021 Errege Lege Dekretuan ezarritako laguntzengatik jasotako funts garbier dagozkie (5/2021 Errege Lege Dekretua, martxoaren 12koa, Covid-19aren pandemiari erantzuteko enpresa-kaudimena babesteko ezohiko neurrii buruzkoa eta autonomiei eta enpresei zuzendua).



Herri Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

### A.3 PERTSONALEKO GASTUAK

Hauek dira 2020. eta 2021. urteetako plantilla eta gastuak:

| LANGILERIA ETA GASTU AITORTUAK             | Euroak, milioikotan    |               |                     |                |              |
|--|------------------------|---------------|---------------------|----------------|--------------|
|  | AURREKONTUKO PLANTILLA |               | OBLIGAZIO AITORTUAK |                | %            |
|  | 21.01.01               | 20.01.01      | 2021                | 2020           | BARIAZIOA    |
| Goi kargudunak .....                       | 172                    | 164           | 13,8                | 12,9           | % 7,0        |
| Behin-behineko langilea.....               | 99                     | 93            | 5,7                 | 5,6            | % 1,8        |
| Funtzionarioak (*).....                    | 26.770                 | 26.691        | 1.164,1             | 1.138,5        | % 2,2        |
| Ertzaintza.....                            | 8.000                  | 8.000         | 328,4               | 312,9          | % 5,0        |
| Lan kontratu finkoko langileak.....        | 2.983                  | 2.932         | 93,3                | 93,3           | -            |
| Ordezkoak eta aldi baterako langileak..... |                        |               | 172,9               | 141,9          | % 21,8       |
| <b>LANGILEAK ETA ORDAINKETAK, GUZTIRA</b>  | <b>38.024</b>          | <b>37.880</b> | <b>1.778,2</b>      | <b>1.705,1</b> | <b>% 4,3</b> |
| Kotizazio sozialak .....                   |                        |               | 525,5               | 490,4          | % 7,2        |
| Klase pasiboan prestazio sozialak .....    |                        |               | 40,6                | 30,4           | % 33,6       |
| Beste gizarte-gastu batzuk.....            |                        |               | 15,4                | 16,2           | (% 4,9)      |
| <b>LANGILERIA GASTUAK, GUZTIRA</b>         |                        |               | <b>2.359,7</b>      | <b>2.242,1</b> | <b>% 5,2</b> |

(\*) Hezkuntza Saileko 19.667 irakasle funtzionario barne hartzen ditu.

### Ordainsariak

EAEko Aurrekontu Orokorren Legeko 19 artikulua agintzen du EAEko Administrazio Orokorren zerbitzura diharduten langileen urteko ordainsariak ezingo dutela % 0,9ko hazkunde globala baino handiagoz izan, 2020ko abenduaren 31n finkatutakoan aldean. Artikulu horrek berak igoera bera ezartzen du 2021erako lehendakari, sailburu, goi kargudun eta parekatutako ordainsarietan ez ezik, baita behin-behinekoenetan ere. 2021eko martxoaren 16ko Gobernu Batzordearen Akordio bidez, % 0,9ko ordainsari-igoera orokorra baimendu zen, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

### Enpleguaren Eskaintza Publikoa

2021eko abenduaren 21eko Gobernu Batzordearen Akordio bidez, 2021eko ekitaldirako lan-eskaintza publikoa onartu zen. Bertan jasotzen dira dauden lanpostu hutsak, aurrekontuz hornituak; lan-eskaintzak 435 plaza eskaintzen ditu EAEko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako funtzionarioentzat eta lan-kontratuko langileentzat, eta 1.856 plaza Hezkuntza Administrazioari funtzionarioentzat eta lan-kontratuko langileentzat.

Gainera, akordio horren arabera, 2020-2024 aldira Euskadiko ekonomia eta enplegua suspertzeko, Berpiztu Programan barne hartuko dira Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako agente kategorian sartzeko 424 plaza eta Osakidetza/Euskal Osasun Zerbitzuaren lan-eskaintza publikoan sartutako estatutupeko 1.273 plaza.

## Txanda kontratuarekin batera hartutako erretiro partzialak

2021ean, 60 urtez gorakoentzat bereizitako erretiro partziala hartu dute 30 langilek, eta beste horrenbeste txanda-kontratu sinatu dira. Egin diren erretiro partzial guztietan, langile erretiratuen dedikazioa % 50ekoa da, eta gainerako lanaldia txandako langile berriek bete dute.

## Kargutik kentzeagatiko kalte ordainak

2021ean, 70.334 euroren zenbatekoa ordaindu zaie 11 pertsonari, Jaurlearitzako kideak, goi kargudunak eta Administrazio orokorreko konfiantzako langileak kargutik kentzeagatik. Onuradun bakoitzari ordaindutako kalte-ordaina ordainsariaren hileko baten baliokide da, Goi Kargudunen Ordainsariei buruzko urriaren 28ko 14/1988 Legeko 5.1. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

## A.4 FUNTZIONAMENDU-GASTUAK

Hona hemen xehakapena, kontzeptuka:

| KONTZEPTUA   | Euroak, milioikotan |                |
|--|---------------------|----------------|
|  | OBLIGAZIO AITORTUAK |                |
|  | 2021                | 2020           |
| Errentamenduak eta kanonak .....                                 | 21,2                | 17,6           |
| Konponketak eta artapena .....                                   | 47,0                | 43,0           |
| Profesional independenteen zerbitzuak .....                      | 4,8                 | 2,8            |
| Garraioak.....   | 1,2                 | 1,1            |
| Aseguru primak, banku zerbitzuak eta antzekoak.....              | 4,4                 | 4,4            |
| Erakunde komunikazioa, publizitatea eta harreman publikoak ..... | 9,5                 | 9,4            |
| Hornidurak .....   | 63,6                | 63,0           |
| Bestelako kanpo zerbitzuak .....                                 | 423,6               | 373,3          |
| - Bulegoko materiala, prentsa eta argitalpenak .....             | 11,8                | 11,8           |
| - Garbiketa .....  | 50,1                | 44,7           |
| - Segurtasuna.....   | 17,2                | 19,7           |
| - Lokomozioa eta egonaldi gastuak.....                           | 8,6                 | 5,6            |
| - Komunikazioak .....  | 13,7                | 11,7           |
| - Mantentzea eta ustiapena .....                                 | 11,5                | 11,4           |
| - EAEko sektore publikoko erakundeek egindako zerbitzuak .....   | 105,1               | 98,6           |
| - Eskola jantokietarako zerbitzuak egitea.....                   | 83,4                | 50,1           |
| - Eskola garraioa eta laguntzaileak .....                        | 24,4                | 15,8           |
| - Beste batzuk .....   | 97,8                | 103,9          |
| Osasun zerbitzuak .....  | 3.630,2             | 3.415,9        |
| Tributuak .....  | 5,7                 | 5,6            |
| Askotariko gastuak.....  | 15,0                | 22,2           |
| <b>GUZTIRA</b>   | <b>4.226,2</b>      | <b>3.958,3</b> |



## A.5 TRANSFERENTZIAK ETA DIRULAGUNTZA KORRONTEAK ETA KAPITALEZKOAK

Hartzaileak eta kontzeptuak aintzat hartuta, honela xehakutzen dira:

| KONTZEPTUA  | Euroak, milioikotan |              |                  |              |
|---|---------------------|--------------|------------------|--------------|
|   | OBLIGAZIO AITORTUAK |              | KONPROMISO KRED. |              |
|   | KORRONTEA           | KAPITALA     | KORRONTEA        | KAPITALA     |
| EAEren Administrazio orokorrari .....                           | 0,5                 | -            | 0,1              | -            |
| Administrazio erakunde autonomoei .....                         | 998,6               | 5,0          | -                | -            |
| Zuzenbide pribatuko erakunde publikoei .....                    | 296,2               | 221,4        | -                | 0,4          |
| Sozietate publikoei .....                                       | 142,5               | 78,0         | 0,1              | 6,0          |
| Fundazioei .....  | 39,1                | 1,6          | -                | 0,1          |
| Partzuergoei .....  | 54,0                | -            | -                | -            |
| EAEko Administrazio publikotzat sailkatutako erakundeei .....   | 409,8               | 106,3        | 9,3              | 61,9         |
| Foru aldundiei .....  | 295,5               | 3,4          | -                | -            |
| Euskadiko toki erakundeei .....                                 | 79,3                | 33,2         | 58,4             | 47,1         |
| Espainiako eta kanpoko sektore publikoko beste erakundeei ..... | 3,1                 | 2,9          | 0,3              | 0,1          |
| <b>SEKTORE PUBLIKOA, GUZTIRA</b>                                | <b>2.318,6</b>      | <b>451,8</b> | <b>68,2</b>      | <b>115,6</b> |
| Kanpoko sektore pribatuari .....                                | 0,3                 | -            | -                | -            |
| EAEren sektore publikoak partaidetutako enpresei .....          | 3,7                 | 13,8         | -                | 1,2          |
| Beste enpresa batzuei .....                                     | 244,2               | 133,7        | 19,4             | 160,3        |
| Familiei .....  | 166,9               | 20,1         | 12,3             | 15,4         |
| Fundazioei .....  | 28,2                | 62,7         | 3,4              | 41,9         |
| Irabazi asmorik gabeko beste erakunde batzuei .....             | 107,5               | 69,5         | 20,4             | 41,9         |
| Hezkuntza itunak eta bestelako prestazio sozialak .....         | 773,6               | -            | 42,8             | -            |
| Protesiak eta elbarrientzako ibilgailuak .....                  | 8,9                 | -            | -                | -            |
| Kalte ordainak eta arauzko entrega bakarrik .....               | 0,6                 | -            | -                | -            |
| Farmazia (mediku errezetak) .....                               | 526,0               | -            | -                | -            |
| <b>SEKTORE PRIBATUA, GUZTIRA</b>                                | <b>1.859,9</b>      | <b>299,8</b> | <b>98,3</b>      | <b>260,7</b> |
| <b>GUZTIRA</b>  | <b>4.178,5</b>      | <b>751,6</b> | <b>166,5</b>     | <b>376,3</b> |





Herri Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Hona hemen GKE bidez EAEONALTBeko 49.7. artikulua babesean emandako zuzeneko dirulaguntza nagusien xehetasunak:

| KONTZEPTUA   | D FASEA 2021 |             | KONPROMISO   |
|--|--------------|-------------|--------------|
|  | KORR.        | KAPITAL.    | KREDITUA     |
| EHU Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea finantzatzea.....   | -            | 0,4         | 54,6         |
| Ikastetxe itunduak Covid-19a aurreikusteko protokoloak .....   | 11,8         | 1,7         | 23,6         |
| Ikastetxe itunduak 21/22 ikasturteko hezkuntza-laguntzako espezialistak .....                                  | 3,7          | -           | 11,3         |
| EAEko udalak Udala titulartasuneko musika zentroak .....   | 12,4         | -           | 2,2          |
| Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa. Handitzea eta berritzea (2021-2036).....                                | -            | 0,1         | 12,5         |
| Elkargi EGE Hornidura teknikoaren funtsa indartzea.....  | -            | 10,0        | -            |
| Abanto-Zierbenako Udala Peñucas auzoa zaharberitzea.....   | -            | 0,7         | 5,6          |
| Oarsoaldea S.A. OA3 Laneratzeko Gunea proiektua (Berpiztu) .....   | 0,6          | 0,6         | 4,8          |
| Prensa eta irratiko komunikabideak. Covid-19aren ondoriozko eragin ekonom. ....                                | 5,0          | -           | -            |
| "4.0 erakunde adimendunak" proiektuan integratutako itunpeko ikastetxeak .....                                 | -            | 4,3         | -            |
| Trapagarango Udala San Andres auzoa birgaitzea.....  | -            | 0,5         | 3,4          |
| Santurtziko Udala. Aurora Vildosola auzoa birgaitzea.....  | -            | 0,3         | 3,1          |
| EHU Digitalizazio-, osasun- eta unibertsitate-programak + Hezkuntza .....                                      | -            | 2,9         | -            |
| Matia fundazioa Prestazio farmazeutikoa egoitzetan.....  | 0,7          | -           | 2,0          |
| Sestaoko Udala Sestaoko Labe Garaiaren balioa nabarmentzea .....   | -            | 0,4         | 2,0          |
| Zallako Udala Zallako La Guatan kultura eta sormen industriak.....   | -            | 0,6         | 1,5          |
| Enkarterri eskualdeko Lanbide Heziketako itunpeko ikastetxeak .....  | -            | 2,1         | -            |
| Debagoieneko Mankomunitatea Epeleko zabortegia berraktibatzea .....  | -            | 1,0         | 1,0          |
| AZTI Fundazioa Oarsoaldean ekonomia urdina garatzeko Hub proiektu teknologiko eta industrial.....              | -            | 0,3         | 1,7          |
| Abokatuen elkargoak. Doako laguntza juridikoa.....   | 2,0          | -           | -            |
| Enkartur-Enkarterrietako Turismo Elkarte. Interkonexio-proiektua aktibo turistiko eta kulturalak.....          | 0,2          | 0,6         | 1,0          |
| Bilboko Elizbarrutiko Karitas "Azken Sarea Indartzen" programa .....   | 1,7          | -           | -            |
| AZTI Fundazioa Azpiegitura zientifiko-teknologikoen inbertsio-plana 2021 .....                                 | -            | 1,5         | -            |
| Irakaskuntzako liberatu sindikalak Ikastetxe Kontzertatuak 2021/2022 .....                                     | 0,4          | -           | 0,7          |
| Errenteriako Udala Kultura- eta sormen-gunea Agustindar Eskoletan.....   | -            | 0,1         | 1,0          |
| "Industria-ondarearen eta itsasadarraren balorizazio turistiko kulturala" proiektua:                           |              |             |              |
| Sestaoko Udala .....   | 0,1          | 0,3         | 0,5          |
| Portugaleteko Udala .....  | 0,1          | 0,1         | 0,5          |
| Deustuko Uniberts.: Digitalizazio-, osasun- eta uniberts.-programak + Hezkuntza .....                          | -            | 0,7         | -            |
| Oiartzungo Udala. Arditurri Bide Berdea Korridore Turistikoaren Proiektua.....                                 | -            | 0,1         | 0,7          |
| Donostiako Elizbarrutiko Caritas. "Azken Sarea Indartzen" programa.....  | 0,7          | -           | -            |
| Peñascal S. Koop. Covid-19 osasun krisiaren deseskalatzearen ondoriozko ostatu-alternatibetara igarotzea ..... | 0,5          | -           | -            |
| UNEDi lotutako zentroak EAEn.....  | 0,5          | -           | -            |
| < 0,5 beste txiki batzuk .....   | 8,2          | 3,5         | 2,6          |
| <b>GUZTIRA</b>   | <b>48,6</b>  | <b>32,8</b> | <b>136,3</b> |



## A.6 INBERTSIO ERREALAK

2021eko ekitaldian kapitulu honen kargura egindako inbertsioak honako hauek izan dira:

| KONTZEPTUA  | Euroak, milioikotan |              |                         |
|---|---------------------|--------------|-------------------------|
|   | OBLIGAZIO AITORTUAK |              | KONPROMISO<br>KREDITUAK |
|   | 2021                | 2020         |                         |
| Erabilera orokorrerako inbertsioak .....                        | 5,3                 | 3,3          | 3,5                     |
| Lursailak eta ondare naturalak .....                            | 7,9                 | 4,5          | 0,1                     |
| Eraikuntzak .....   | 105,0               | 51,0         | 45,1                    |
| Instalazio teknikoak, makineria eta lanabesak .....             | 12,2                | 14,1         | 1,2                     |
| Altzariak .....   | 4,7                 | 3,7          | 0,1                     |
| Informazio prozesuetarako ekipoak .....                         | 7,5                 | 15,0         | -                       |
| Garraio gaiak .....   | 2,2                 | 1,2          | -                       |
| Beste ibilgetu material bat .....                               | 0,8                 | 0,4          | 0,1                     |
| Aplikazio informatikoak .....                                   | 12,0                | 12,4         | 4,3                     |
| <b>INBERTSIO PROPIOAK</b>                                       | <b>157,6</b>        | <b>105,6</b> | <b>54,4</b>             |
| Beste erakunde publiko batzuetarako kudeatutako inberts. (*)... | 38,7                | 49,5         | -                       |
| <b>GUZTIRA</b>  | <b>196,3</b>        | <b>155,1</b> | <b>54,4</b>             |

(\*) Sartuta dago ETSBren Gipuzkoako bide zatia egikaritzea.

## Euskadin trenbide sare berria eta Bilboko hegoaldeko tren saihezbidea

Estatuko Administrazio orokorrak, EAeko Administrazio orokorrak eta Trenbide Azpiegituren Administrazioaileak (ADIF) 2006ko apirilaren 24an lankidetzan hitzarmen bat sinatu zuten, ETSB (Euskal Y-a) eraikitzeke. Hitzarmenaren ondorioz, Eusko Jaurlaritzak arduratu zen Gipuzkoako Bergara-Irun adarraren obretako proiektuak idazteaz eta egikaritzea kontratatzeaz, bai eta Donostiako hirian txertatzeko bide zatiaz ere. Hasieran, obren kostu aurreikusia 1.642 milioi euro zen, 2006-2010 aldirako; hor sartuta zeuden obrak egikaritzeko behar ziren ondasun eta eskubideak desjabetzea finantzatzeko 43 milioi euro. Hitzarmena 2021eko abenduaren 23an aldatu zen, jarduera gehigarri batzuk barne hartzeko. Aldaketa honek guztira 2.024,6 milioi euroren kostua eragingo zuela balioetsi zen.

Eusko Jaurlaritzak, 2006ko ekainaren 27ko GKE bidez, ETSren esku utzi zituen Euskal Y-ari dagozkion eraikuntza proiektuak idazteko, obra zuzentzeko, beharrezko laguntza teknikoetako eta desjabetze espedienteen administrazio kudeaketan laguntzeko jarduerak, 2006-2010 aldian, guztira 114,1 milioi euroren zenbatekoan. Amaitu ostean, 2011ko uztailaren 12ko GKE bidez, beste mandatu bat onartu zen 2011-2015 aldirako, zeinak 2021era arte hamar aldaketa izan zituen, aurreikusitako egikaritzea epeak eta kostuak egokitzearen.

Hamargarren aldaketan, GKEk 2021eko ekainaren 1ean onetsitakoan, 128,3 milioi euroren zenbatekora gaurkotu zen proiektuak idazteagatik, obrak zuzentzeagatik eta laguntza-lanengatik agindutako lanen balorazioa, eta obrak gauzatzeko kostua 2.131,1 milioi eurorena izango zela kalkulatu zen 2011-2025 aldirako.

Kostu horiei gehitu behar litzaieke 2010eko ekitaldira arteko egiazko egikaritzea (303 milioi euro) eta 2025era arte aurreikusitako azken kostua 2.562,4 milioi euro izango da.

Honako taula honetan xehakatuta dago bide zatietako bakoitzean 2021eko abenduaren 31 arte egindako kostua:

| KONTZEPTUA   | Euroak, milioikotan |                |              |             |                |                |
|--|---------------------|----------------|--------------|-------------|----------------|----------------|
|  | ESLEIPENA           |                |              | EXEKUZIOA   |                |                |
|  | URTEA               | ZENBAT. (1)    | GORAB. (2)   | 2021        | AURREKO URT.   | GUZTIRA        |
| Ordizia-Itsasondo zatia (2012an bukatua).....                  | 2007                | 51,0           | 13,2         | -           | 64,2           | 64,2           |
| Tolosako zatia (2017an bukatua) .....                          | 2009                | 81,7           | 25,0         | -           | 106,7          | 106,7          |
| Legorretako zatia (2014an bukatua).....                        | 2009                | 70,2           | 26,4         | -           | 96,6           | 96,6           |
| Beasain Ekialdea zatia (2012an bukatua) .....                  | 2009                | 45,2           | 9,9          | -           | 55,1           | 55,1           |
| Beasain Mendebaldea zatia (2015ean bukatua) .....              | 2009                | 44,2           | 13,1         | -           | 57,3           | 57,3           |
| Bergara-Antzuola zatia (2017an bukatua).....                   | 2010                | 109,5          | 31,4         | 1,7         | 139,2          | 140,9          |
| Andoain-Urnieta zatia (2017an bukatua).....                    | 2010                | 77,1           | 12,7         | -           | 89,8           | 89,8           |
| Tolosa-Hernalde zatia (2014an bukatua).....                    | 2010                | 106,4          | 21,2         | -           | 127,6          | 127,6          |
| Urnieta-Hernani zatia (2021ean amaitua) .....                  | 2010                | 139,3          | (6,0)        | 0,1         | 133,2          | 133,3          |
| Ezkio Itsaso – Beasain zatia (2015ean bukatua).....            | 2010                | 57,9           | 13,6         | -           | 71,1           | 71,1           |
| Antzuola-Ezkio/Itsaso Mendebaldea zatia (2020an buk.) ...      | 2010                | 122,0          | 46,1         | -           | 168,1          | 168,1          |
| Bergara-Bergara zatia (2017an bukatua).....                    | 2011                | 97,1           | 8,0          | -           | 105,1          | 105,1          |
| Antzuola-Ezkio/Itsaso Ekialdea zatia (2018an bukatua).....     | 2011                | 128,5          | 14,4         | -           | 142,9          | 142,9          |
| Ezkio Itsaso –Ezkio/Itsaso zatia (2017an bukatua).....         | 2011                | 57,7           | 7,2          | -           | 64,9           | 64,9           |
| Hernani-Astigarraga zatia (2018an auzia ebatzi zen).....       | 2011                | 73,3           | (34,4)       | -           | 38,9           | 38,9           |
| Zizurkil-Andoain zatia (2020an bukatua) .....                  | 2012                | 184,4          | 8,9          | -           | 186,9          | 186,9          |
| Zizurkil-Andoain zatia (2020an bukatua) .....                  | 2012                | 162,1          | (6,3)        | -           | 155,8          | 155,8          |
| Beste gastu batz. (Euskaltel, Iberdrola, Naturgas, etab.)..... |                     |                |              | -           | 5,3            | 5,3            |
| <b>OBRAK ETA BESTELAKO GASTUAK, GUZTIRA</b>                    |                     | <b>1.607,6</b> | <b>204,4</b> | <b>1,8</b>  | <b>1.808,7</b> | <b>1.810,5</b> |
| ETSren kudeak.-mandatuak (Obren zuzend. eta egik.)             |                     |                |              | 34,0        | 221,7          | 255,7          |
| <b>EUSKAL Y, 21-12-31N</b>                                     |                     |                |              | <b>35,8</b> | <b>2.030,4</b> | <b>2.066,2</b> |

(1) Esleipenaren zenbatekoa, 2010eko eta 2012ko ekitaldietan BEZaren zerga tasaren aldaketek izandako gorabeherarekin eguneratua.

(2) Kontratuetan izandako gorabeheren guztizkoa jasotzen du: aldaketak, prezioen berrikustekak, azken ziurtagiria, larrialdia, gastu baliozkotutako, segurtasunagatik ordaindutako gastuak, kalte-ordainak, obra osagarriak eta abar.

2017ko uztailaren 12an lankidetzaz hitzarmena izenpetu zen Estatuko Administrazio Orokorraren, ADIFen eta EAEko Administrazio Orokorraren artean, zeinaren indarrez azken honek hartu baitzuen Bilboko hegoaldeko tren saihebidetaren proiektuak idatzi eta obren egikaritzaren kontratatzearen ardura; obra horren helburua da Bilboko portuko salgaien joan-etorria erraztea, izan ere, portuak izandako zabalketen eta demanda-igoeraren ondorioz, euskal Ya eraikitzeak izan dezakeen trafiko handitzearekin batera, beharrezkotzat jotzen da salgaien saihebidetaren egitea, inguruko lineen trafikoa arinduko duena. Obra horiek finantzatzeko dira egindako gastuak kupotik murriztuta.

Berebat, ETSrekin ere kudeatzeko mandatu bat izenpetu zen, Bilboko hegoaldeko tren saihebidetako lanak egikaritzeko. Mandatuaren bigarren aldaketaren ondoren, 2021eko irailaren 28ko GKE bidez onartutakoa, obren kostu zenbatetsia 464,8 milioi euro da 2018-2025 aldirako. 2021eko ekitaldian, egindako gastua 1,9 milioi euro izan da eta ekitaldi itxierako kostu metatua, berriz, 3,7 milioi euro.



Herri Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## A.7 AKTIBO FINANTZARIOEN GEHIKUNTZA

Hauek dira xehetasunak, gastu kontzeptuak aintzat hartuta:

| KONTZEPTUA   | Euroak, milioikotan    |                         |
|--|------------------------|-------------------------|
|  | OBLIGAZIO<br>AITORTUAK | KONPROMISO<br>KREDITUAK |
| <b>EA Eren sektore publikoan partaidetzak</b>  | <b>164,7</b>           | -                       |
| FEI .....  | 50,0                   | -                       |
| Euskal Irrati Telebista .....  | 6,2                    | -                       |
| SPRI – Enpresa garapenerako euskal agentzia .....                                    | 78,5                   | -                       |
| Alokabide S.A. ....  | 30,0                   | -                       |
| <b>EA Eren Sektore Publikoko entitateei kredituak</b>                                | <b>2,9</b>             | -                       |
| Eusko Trenbideak S.A. ....   | 2,9                    | -                       |
| <b>Partaidetzazko enpresen akzioak erostea</b>                                       | <b>6,8</b>             | -                       |
| Bilbao Exhibition Centre S.A. ....   | 5,8                    | -                       |
| Bilboko Arte Moderno eta Garaikidearen Museoaren Ukanduna S.L. ....                  | 1,0                    | -                       |
| <b>Mailegu eta aurrerakinak toki erak., enpresa pribatuei eta familiei, epe luz.</b> | <b>10,4</b>            | <b>27,6</b>             |
| Gauzatu programa .....   | 9,7                    | 27,6                    |
| Bideratu programa .....  | 0,7                    | -                       |
| <b>Maileguak eta aurrerakinak langileei</b>  | <b>5,2</b>             | -                       |
| <b>GUZTIRA</b>   | <b>190,0</b>           | <b>27,6</b>             |

FEIri egindako ekarpena egin zen erakunde publiko horrek Finkatze Kapitala Finkatuz S.A. sozietate publikoa eratzeko eta hasierako kapitalaz hornitzeko, apirilaren 13ko 124/2021 Dekretuan jasotako baimenari jarraikiz. Sozietate berriaren helburua da EA Eren enpresa handietan finantza-partaidetzak hartzea eta kudeatzea, Euskadin errotzea bermatzeko eta produkzio-sare osoan trakzio-izaera izan dezaten.

SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziari egindako entreegik Berpiztu, 2020-2024 aldirako Euskadiko ekonomia eta enplegua suspertzeko Programaren proiektuak finantzatzeko 41,7 milioi euroren ekarpenak barne hartzen dituzte.

Alokabide S.A.ri egindako 30 milioi euroren ekarpena ez da itzulgarria, eta hipoteka-kredituak alde aurretik amortizatzeko erabili da.

## A.8 TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK

Hauek dira 3. kapituluaren aitortutako sarrerak eta kobratzekoa:

| KONTZEPTUA  | Euroak, milioikotan   |                     |
|---|-----------------------|---------------------|
|   | ESKUBIDE<br>AITORTUAK | KOBRTATZEKO<br>ZAIN |
| Eskola jantokien sarrerak .....                                 | 63,2                  | -                   |
| Trafiko isunak eta zehapenak.....                               | 35,0                  | 11,8                |
| Hainbat ikastetxetako zerbitzuengatik sarrerak .....            | 9,5                   | -                   |
| Beste tasa batzuk (portuak, titulu akademikoak eta beste) ..... | 7,0                   | 0,3                 |
| Itzulketak .....  | 10,5                  | 0,8                 |
| Higiezin errentamendua.....                                     | 8,2                   | 1,8                 |
| Bestelako isunak eta zehapenak.....                             | 9,2                   | 2,6                 |
| Premiamenduko erreargua.....                                    | 5,3                   | 4,6                 |
| Kanonak, emakidak eta askotariko zerbitzuak .....               | 2,1                   | 0,1                 |
| Obra publikoen zuzendaritza eta ikuskatzea .....                | 2,1                   | 0,1                 |
| Hezkuntza, hautapen eta ostalaritza zerbitzuak .....            | 3,2                   | -                   |
| Exekutututako abalengatik sarrerak.....                         | 2,7                   | 0,8                 |
| Beste prezio publiko batzuk .....                               | 2,9                   | -                   |
| Berandutza interesak.....                                       | 1,4                   | 0,1                 |
| Telelaguntza .....  | 2,5                   | -                   |
| Etxebizitzan, garajeen, eranskinen eta lokalen salmenta.....    | 0,7                   | -                   |
| Bestelako sarrerak .....  | 3,2                   | 0,1                 |
| <b>GUZTIRA</b>  | <b>168,7</b>          | <b>23,1</b>         |

Betearazteko bidean dauden trafiko isunengatik 2021eko abenduaren 31n kobratzeke dagoen zenbatekoa 11,8 milioi euro da; eta premiamendu errearguagatik, 4,6 milioi euro. Nekez kobratu ahalko direnez, zenbateko horren % 50 kendu da erabilgarri dagoen Diruzaintzako geldikin erabilgarria kalkulatzeko.

## A.9 TRANSFERENTZIA KORRONTEENGATIKO SARRERAK

Hauek dira sarrera aitortuak eta haien kobrantzak, 2021eko ekitaldian:

| KONTZEPTUA                        | Euroak, milioikotan |                 |                |
- Agintzari S. Koop. Laguntza eta arreta psikologikorako proiektua (Covid-19).



**A1 gabezia - Aurrekontuetan dirulaguntza izendun gisa sar zitezkeen, haien xedea ez baitzen salbuespenezko edo aurreikusi ezin diren egoerak artatzea.**

3 dirulaguntza horiek Covid-19arekin lotuta zeuden, eta, beraz, hiru kasuetan, ezin izan ziren dirulaguntza izendun gisa sartu aurrekontuak egitean; izan ere, ezin zen zehaztu zer ondorio izango zituen pandemiak, ez eta erakundeen erantzunak zenbaterainokoa izan behar zuen ere.

### **Artium Fundazioa. Euskal artista biziari obra garaikideak erostea**

**A1 gabezia - Aurrekontuetan dirulaguntza izendun gisa sar zitezkeen, haien xedea ez baitzen salbuespenezko edo aurreikusi ezin diren egoerak artatzea.**

Dirulaguntza hori 2020an bakarrik eman zen, pandemia-egoeratik. 2021. urteko aurrekontuak prestatzean, pandemia-egoera hobetzen ari zen, eta, ondorioz, amaitutzat jo ziren dirulaguntza ematea justifikatzen zuten salbuespenezko inguruabarrak. 2021aren amaieran, ordea, salbuespenezko inguruabarrek –espedientean behar bezala arrazoituta daude– dirulaguntza emateko beharra eragin zuten. Dirulaguntza horiek izendun gisa sartzea materialki ezinezkoa izan zen.

### **Seaska-Iparraldeko Ikastolen Federazioa. Euskara-plana egitea**

**A1 gabezia - Aurrekontuetan dirulaguntza izendun gisa sar zitezkeen, haien xedea ez baitzen salbuespenezko edo aurreikusi ezin diren egoerak artatzea.**

2021eko aurrekontuak prestatzean, ez zegoen aurreikusita diruz lagundu den jarduketa hori ekonomikoki sustatzen jarraitzea. Oso gerora –dirulaguntza emateko Gobernu Kontseiluaren Erabakia 2021eko azaroaren 30ekoa da, eta egintza hori onartzeko espedientearen hasierako dokumentua (onuradunaren eskaera) 2021eko azaroaren 11koa–, salbuespenezko inguruabarretan oinarrituta –espedientean behar bezala zehaztuta daude–, dirulaguntza ematea erabaki zen, horretarako gaitzen zuten legezko inguruabarrak betetzen baitziren.

### **Itunpeko ikastetxeak. Covid-19aren prebentzio-protokoloak**

**A2 gabezia - Ez da egiaztatu laguntzen banakako esleipena.**

EAEko Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikastetxe itundu guztiei emandako laguntzen banakako esleipena egin zen Gobernu Kontseiluak 2021eko azaroaren 27an onartutako emateko erabakian ezarritako irizpideen arabera (2021eko abuztuaren 20eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuta).

Laguntzak kalkulatzeko erabilitako datuak SPSS programan landutako Hezkuntza Sailaren datu-baseetatik atera ziren, eta doikuntzak Excel-en egin ziren hurrengo paragrafoetan azaltzen diren irizpideen arabera.

Finantzatu beharreko objektua eta aurreikusitako baliabide ekonomiko gehigarriak esleitzeko irizpideak honako hauek izan ziren:





## 1.- Langile berriak kontratatzea.

1.1.- Kontzeptu horretara bideratutako zenbatekoa zehazteko, ikastetxe bakoitzaren Hezkuntza Konplexutasunaren Indizea (HKI) hartu zen kontuan:

Hezkuntza Konplexutasunaren Indizea (HKI) –lehen Hezkuntza Beharren Indizea (HBI) zen–, zailtasun handieneko baldintzetan lan egiten duten ikastetxeak zeintzuk diren jakiteko eratu da, haien beharrak zehatzago definitu eta, hartara, eskaintzen zaizkien baliabideak doitu ahal izateko. HKIren azken helburua gure hezkuntza-sistemaren ekitatea hobetzea da.

Indizea zortzi elementu osagarritan oinarrituta sortu da; horietako batzuetan hezkuntza-etapa osoa hartu da kontuan (Lehen Hezkuntza edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza), eta beste batzuetan, kanpo-ebaluazioetatik ateratako datuak dira abiapuntu, zehazki, ISEIk ikastetxe guztietan egindako ebaluazio diagnostikoetatik ateratakoak.

Hona hemen indize honetan kontuan izaten diren aldagaiak:

- Ikastetxeen barne-ebaluazioan ikasleek izan duten emaitza. Lehen Hezkuntzan edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, ikasturte amaieran oinarritzko bost konpetentziak gainditzen ez dituzten ikasleen portzentajearen batezbestekoa da.
- Ebaluazio Diagnostikoan ikasleek izan duten emaitza. Ebaluatutako konpetentzia bakoitzean hasierako mailan geratu diren ikasleen ehunekoaren batezbestekoa da. Konpetentzia bakoitzean ikasleak hiru mailatan banatzen dira, eta hasierako maila da apalena; horrek zera esan nahi du, ikasleak ahalegin osagarria egin behar duela etapa amaitzean oinarritzko konpetentziak garatzeko.
- Ikastetxearen indize sozioekonomikoa eta kulturala (ISEK), azken Ebaluazio Diagnostikoa egin duten ikasleen arabera kalkulatua. Ikastetxearen maila sozioekonomikoaren aldagai orokorra da. Aldagai horretan bi muga uztartzen dira: alde batetik, ikastetxeko maila bakar bati erreparatzen dio (Lehen Hezkuntzako 4. mailari edo DBHko 2. mailari), nahiz eta, ikasturteak joan, ikasturteak etorri, datua egonkorra dela egiaztatu den; eta, bestetik, bi urtean behin egiten dela neurketa, eta, beraz, ikastetxe batek bi ikasturtetan eusten dio balio berari.
- Bekadun ikasleak ikastetxean. Aurreko ikasturtean material-beka bat eskuratu duten ikastetxeko eta etapako ikasleen portzentajea hartzen da kontuan. Mota horretako beka soilik hartzen dira kontuan ikastetxe guztietan irizpide bera erabiltzen delako beka horiek emateko, eta ez da horrelakorik gertatzen jangelako bekekin –ikastetxe guztietan ez dago horrelako bekarik–, ezta garraio-bekarekin ere, etxetik ikastetxerako distantziaren eta garraio-zerbitzua izatearen baldintzapean baitago
- Hezkuntza-laguntzaren premia duten ikasleak. Laguntza motaren bat behar duten ikasleen portzentajea da; laguntza horrek Hezkuntza Sailaren datu-basean esplizituki zehaztua eta zenbatua egon behar du.
- Ikasle etorkinak ikastetxean. Ikastetxe osoan eta etapa osoan dauden ikasle etorkinen portzentajea da.



- Adin egokitasunik ez duten ikasleak. Ikastetxean/etapan adin egokitasun egoeran ez dauden ikasleen portzentajea da, hau da, adinaren arabera dagokiena baino beheragoko maila batean eskolatuta dauden ikasleen portzentajea.
- Ikasleek ikastetxean jarraitzea. Etapa osoan ikastetxe berean egon diren ikasleen portzentajea da. Ikastetxe batean jarraitutasun txikia izateak, hau da, ikasleen artean aldaketa handia izatea, irakasleen hezkuntza-zeregina zailtzen duela ulertzen da.

Esan bezala, aldagai horietako batzuk Ebaluazio Diagnostikoen aplikazioetatik datoz, eta horiek dira, halaber, eredu estatistikoetan txertatu ditugunak –bi mailetako testuinguru-aldagai gisa–; eredu horiei esker, eraginkortasun handiko eta txikiko ikastetxeak zeintzuk diren hautemateko eta hautatzeko aukera izan dugu. ISEK maila, ikasle etorkinak eta adinarekin bat ez datorren mailan dauden ikasleak dira aldagai horiek.

Datu horietan oinarrituta, aldagai guztiak neurri berera doitzen dira (aldagai bakoitza 25 zentileko beste bat bihurtzen da eta, horrela, aldagai guztiak zero puntutik 25 puntura bitarte doaz; konplexutasun-mailarik txikiena zero da, eta handiena 25). Ikastetxe bakoitzaren azken balioa aldagai horien konbinazio haztatua da, ikastetxearen emaitzekin duten erlazioaren arabera. Horrela sortutako Hezkuntza Konplexutasunaren Indizea 0-25 puntu bitarteko aldagaia da.

Sailak indize hori erabiltzea lagungarri izaten da ikastetxeen egoera interpretatzeko, baita ikastetxeei ematen zaizkien baliabideak doitzeko ere.

HKI altua duten ikastetxeek, indize sozioekonomiko eta kultural oso apala (edo apala) dute, eta bekadun ikasleen, atzerritar ikasleen eta hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten ikasleen portzentaje handiak izaten dituzte. Gainera, ikasleen mugikortasun handiagoa izaten dute (HKI maila >20 dutenen artean, % 61k baino ez du egiten Lehen Hezkuntza osoa ikastetxe berean).

Informazio horrek balio du adierazteko hezkuntza-konplexutasunaren indizeak emandako datuek adierazten dutela irakasle-taldearen esku-hartzea zein ikastetxetan den konplexuena.

1.2.- Ikastetxe bakoitzari langile berriak kontratatuzko edo jada dudenei ordu gehigarriak gehitzeko ematen zaion kopuruaren kalkulua jarraian aipatzen diren erregelen arabera egin zen:

- Haur Hezkuntza, lehen zikloa (0, 1 eta 2 urteko gelak): 0,1 lanaldi bi taldeko, ikastetxe bakoitzeko irakasleen eta irakasle ez diren langileen denboraren 0,50 gehienez. Osatu gabeko lerroak proportzionalki doituta.
- Haur Hezkuntza, bigarren zikloa (3, 4 eta 5 urteko gelak): 0,1 lanaldi hiru taldeko, edo bi taldeko, ikastetxeak bi talde baino ez baditu. Osatu gabeko lerroak proportzionalki doituta.
- Lehen Hezkuntza: Sei talde dituen lerro oso bakoitzeko (hau da, horietako bakoitza etapako sei mailetako bati dagokio), 0,5 lanaldi. Lerro oso batekoak ez diren taldeen



kasuan: 0,1 taldeko, 0,2 bi taldeko, 0,3 hiru edo lau taldeko eta 0,4 bost taldeko. Osatu gabeko lerroak proportzionalki doituta.

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza: Lau talde dituen lerro oso bakoitzeko (hau da, horietako bakoitza etapako lau mailetako bati dagokio): Irakasleen 0,33 lanaldi. Osatu gabeko lerroak proportzionalki doituta.
- Batxilergoa: Bi talde dituen lerro oso bakoitzeko (hau da, horietako bakoitza etapako bi mailetako bati dagokio): 0,165 lanaldi. Osatu gabeko lerroak proportzionalki doituta.

Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan hezkuntza-ituna duten eta Hezkuntza Konplexutasunaren Indizean 1. edo 2. mailak dituzten ikastetxeei honako arau hauen arabera kalkulatu zaie langileen kontrataziorako edo langileen orduen gehikuntzarako zenbatekoa:

- Lehen Hezkuntza. 1. mailako hezkuntza-konplexutasuna duten ikastetxe guztiei (20 puntu baino gehiago 2020ko eskalan) 0,3 irakasle-lanaldi gehituko zaie, eta 2. mailako hezkuntza-konplexutasuna dutenei (15-20 puntu 2020ko eskalan) 0,2 irakasle-lanaldi gehituko zaie.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza: 1. mailako hezkuntza-konplexutasuna duten ikastetxe guztiei (22,5 puntu baino gehiago 2020ko eskalan) 0,45 irakasle-lanaldi gehituko zaie, eta 2. mailako hezkuntza-konplexutasuna dutenei (18,5 eta 22,5 puntu artean 2020ko eskalan) 0,25 irakasle-lanaldi gehituko zaie.

## 2. - Irakasleen ordezkapenak.

Laguntza kalkulatzeko, hezkuntza-itunaren araubidean ikastetxeari dagokion irakasle-moduluaren % 40ko gehikuntzaren translazio matematikoa baliatu zen. Modulu horiek ekitaldi ekonomiko bakoitzeko EAeko Aurrekontuen Legean argitaratzen dira.

Ituneko ordezkapenen moduluak, zeinean aipatutako % 40a aplikatuko baita, hau da:

- % 4 Haur Hezkuntzako 2. zikloan, Lehen Hezkuntzan eta DBHn.
- % 2 Batxilergoan eta Lanbide Heziketan.
- % 5 hezkuntza berezi itxian eta zereginen ikaskuntzan.

## 3.- Garbiketa-gastuak

Garbiketa-gastuaren aparteko finantzaketara bideratutako zenbatekoa hezkuntza-ituneko araubidean ikastetxeari dagokion mantentze-moduluaren garbiketa-osagaiaren % 20 izan zen. Gehikuntzaren aplikazio matematikoaren bidez egin zen kalkulua.

## 4.- Material informatikoa erostea edo errentan hartzea.

Material informatikoa erosteko edo errentan hartzeko zenbatekoa kalkulatzeko, 21,75 euro eman ziren ikastetxe bakoitzean Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailetan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1., 2., 3. eta 4. mailetan eskolatutako ikasle bakoitzeko.

Sare publikoko Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleentzat eta DBHko eta Batxilergoko irakasleentzat ekipo informatikoak berritzeko eta hornitzeko aurrekontuetan jada aurreikusita zegoen zuzkidura kontuan hartuta, eta ekipo eta material informatikoak erosteko 2 milioi gehiago bideratu zirela kontuan hartuta, sare itundurako proportzionaltasun-printzipioari jarraitu zitzaion, antzekoa izan zedin bi sareetan ezarritako baliabide-zuzkidura gehigarria. Esleipen horretarako baliatu zen irizpidea ikastetxe bakoitzeko ikasle kopurua izan zen.

### **Komunikabideak: prentsa eta irratia. Covid-19aren eragin ekonomikoa**

#### **A3 gabezia - Memoriak ez du justifikatzen deialdi orokor bat egiteko ezintasuna.**

3. eranskin gisa gehitu da Memoria Osagarria, 2021eko urriaren 19koa. Bertan, honela arrazoitu zen ezintasun hori: «Deialdi publiko bat egitea eragozten duten arazoiei dagokienez, adierazi behar da ezen Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak gaur egun kudeatzen dituen dirulaguntzetarako deialdiek ezin dietela erantzun proposatzen den proiektuaren xedeei». Horrenbestez, ondorioztatzen da dirulaguntza honen xedea ez zettorrela bat Sailaren gainerako dirulaguntzen programekin, eta, beraz, ezinezkoa izan zela xedapen orokor baten bidez deialdi bat egitea.

#### **A5 gabezia: Laguntzaren helburuaren eta esleipenaren arteko lotura bermatzen duen mekanismorik gabe.**

Laguntzaren helburua da Covid-19ak EAEn egoitza edo ordezkariak duten prentsa- eta irradi-komunikabideetan sortutako eragin ekonomikoaren ondorioak arintzea. Zehazki, egunkarien salmenten jaitsierak, eta, publizitateagatik diru-sarreraren jaitsierak komunikabideetan eragindako ondorio negatiboak arindu nahi ziren. Beraz, helburua hori izanik, honako premisa honetan oinarrituta eratu zen laguntza: 2021eko lehen seihilekoan audientzia handiena zuten komunikabideek jasan zituzten, ustez, ondorio negatibo handienak.

#### **A6 gabezia - Bateragarritasun-muga betetzen dela egiaztatzeko ezintasuna.**

Ezin da jakin laguntzak eman ziren helburuaren bateragarritasun-muga betetzen den.

Esleipena Covid-19ak sortutako eragin ekonomikoarekiko zuzenki proportzionala izan denez, zuzkidura osoa –5.000.000 euro– modu proportzionalan banatu da onuradunen artean; izan ere, zenbat eta irakurle/entzule gehiago izan, orduan eta handiagoa izango zen, ustez, galera –dela egunkarien salmentaren murrizketagatik, dela publizitateagatik diru-sarreraren murrizketagatik–.

Onuradunen legezko betebeharrak zen xede bererako jasotako zenbateko ororen berri ematea. Alabaina, haietako batek ere ez du jakinarazi helburu bererako beste erakunde publiko edo pribatu batek emandako dirulaguntza edo laguntzarik jaso duen.



#### **A7 gabezia - Ordainketa aurreratuko sistema bat ezarri da justifikazio egokirik gabe.**

Dirulaguntzaren xedea Covid-19aren eragin ekonomikoa arintzea da. Hala, DLoren 2.1 b) artikulua, dirulaguntzaren kontzeptuari dagokionez, besteak beste, honako baldintza hau bete behar dela xedatzen du: «Emateko baldintza izan dadila helburu jakin bat betetzea, proiektu bat gauzatzea, jarduera bat egitea, jokabide berezi bat hartzea, jada egina edo oraindik egiteke, edo inguruabar jakin batzuk gertatzea; eta onuradunak bete egin behar ditu ezarritako betebeharrak material eta formalak». Hori dela eta, diruz lagundu den hori –eragin ekonomikoa– jada gertatu zen laguntza eman –eta ordaindu– zen unean. Beraz, ez gaude ordainketa aurreratu baten aurrean, galera ekonomikoak jada gertatu baitziren.

#### **A8 gabezia - Ordainketa aurreratuak egin dira onuradunek bermerik eman gabe.**

Aurreko gabeziaren kasuan adierazi den bezala, ez zen inolako bermerik eman behar, ez baitzen ordainketa aurreraturik egin: dirulaguntza eman eta ordaindu zen unerako, jada gauzatua zegoen diruz lagundutakoa.

### **3.3.2- Lehiaren Mendeko Dirulaguntzak.**

#### **4. EAEEn hondakinen araudia ezartzeko eta ekonomia zirkularra sustatzeko laguntzak.**

**B2 gabezia - Eraginkortasuna eta efizientzia ebaluatzeko aukera ematen duen adierazlerik ez da sartu.**

Programaren gauzatze- eta betetze-maila baloratzeko adierazleak eta magnitudeak Arloko Batzarraren Akordioan jasota daudenez, eta horiek instantzia horretan alda daitezkeenez, uste da ez dela komeni adierazleak sartzea sailaren dirulaguntzen plan estrategikoan, eta, beraz, aurkeztutako eskaerei eta laguntzaren xede diren proiektuen kopuruari buruzko zifrak soilik sartu dira.

#### **Programak:**

- 2. Bilakatu (Covid-19). Dibertsifikatze- eta/edo birlokalizatze-jarduketak.
- 3. Bateratu (Covid-19). Sendotze-jarduketak.

#### **B7 gabezia - Ordainketa aurreratuko sistema bat ezarri da justifikazio egokirik Gabe.**

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburuaren 2021eko ekainaren 2ko aginduek, bi laguntza-programa horiek arautzen dituztenek, ez zuten ordainketa aurreraturik jasotzen.

Alabaina, dirulaguntzen justifikazioarekin eta ordainketarekin lotuta bi deialdietan egin zen aldaketak –Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2021eko urriaren 13ko Aginduaren bidez egin zenak (2021eko urriaren 11ko EHAA, 209. zk.)– ordainketa aurreratua jasotzen zuen. Aldaketa egiteko idatzi zen memorian honako hau adierazten zen:



Herri Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

«Kontuan hartuta dirulaguntzen justifikazioari eta ordainketari buruzko artikulua nola dagoen idatzita, eta aurrekontua ixteko arauak ekitaldiko ordainketak 2021eko abenduaren 31 baino lehen egitea xedatuko dutela, 150 ikuskapen baino gehiago egin beharko genituzke urteko azken hiruhilekoan, eta hori egiteak ohiko ikuskaritza-lana kolapsatuko luke lurralde-ordezkaritzetan.

Horren haritik, prozeduraren kudeaketak optimizatzeko eta programa bakoitzari esleitutako aurrekontu-baliabideak optimizatzeko, 14. artikulua berriro idaztea proposatu da, eta, horrenbestez, hiru programetan eragina duten aginduak aldatzea, artikulua horri dagokionez.

Proposamena:

- Emakidan dagokion zenbatekoaren % 5 ordaintzea, emakida onartu ondoren edo laguntza eman dela jakinarazten duen komunikazioa jaso eta hamabost eguneko epean.
- 2022ko lehen bi hilabeteetan 2021eko ekitaldiko fakturak aurkeztuko dira, eta 2022koak, halakorik balego. Fakturok aurreratutako zenbateko osoa berdinduko dute. Hortik aurrera, ordainketak egiteko ohiko prozedurari jarraituko zaio, hots, fakturaren justifikazioa eta ikuskapena».

Hori guztia, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 49.11 artikulua ezartzen duena oinarri hartuta, uste baita inguruabarrek, aurrekontua ixteko eta ikuskapenak egiteko datak direla-eta, salbuespenezko egoera sortzen dutela programen kudeaketan.

### III.4 KONTRATAZIOA

#### III.4.2 AURREKO EKITALDIETAN ADJUDIKATUTAKO ESPEDIENTEAK

Esp. 12. Segurtasun Sailaren mendeko zentroak garbitzeko zerbitzua. Aldaketa.

D3 gabezia. Aldaketa gauzatzea onartu eta adjudikatu aurretik.

Covid-19aren pandemia zela eta, Segurtasun Sailak, larrialdi sanitarioetatik eta osasun publikoko arrazoiengatik, sendotu egin behar izan zituen sail horren mendeko zentroetako garbiketa-zerbitzuak (gehienak ertzain-etxeetakoak). Hori dela eta, prozedura negoziatuen izapideak amaitu aurretik ekin behar izan zitzaion garbiketa-prestazio berriak gauzateari. Azpimarratu behar da errefortzuko garbiketa-zerbitzuen fakturak a posteriori ordaindu zirela beti, hots, prestazioak benetan gauzatu ondoren.

ESP. 14. EAEko larrialdietako garraio sanitarioa eta larrialdietako garraio sanitarioaren sarerako (LGSS) larrialdi sanitarioetako asistentzia. Berronena ekonomikoa.

D5 gabezia. Gorabehera berronena ekonomikoa LGSS.

Izaera sozialeko edo sanitarioko edo hezkuntza-izaerako zerbitzu-kontratuak Sektore Publikoko Kontratuari buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen IV. eranskinean aipatzen dira (Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko



2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora), bai eta lege horren 47. xedapen gehigarrian ere. Kontratu horiek badute berezitasun bat; izan ere, ekonomikoki orekatu daitezke, ezin baitira zerbitzu-kontratutzat jo zentzu hertsian.

Arrazoibide hori kontratazio-organoak 2022ko otsailaren 7an berroreka horri buruz emandako Ebazpenean dago azalduta (5. eranskinean jaso da), eta, aldi berean, Saileko Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritzaren txosten juridikoan oinarritzen da.

### III.4.3 2021EAN ADJUDIKATUTAKO ESPEDIENTEAK

ESP. 21. Getariako portuko kanpoko babes-dikea sendotzea.

A3 gabezia. Kaudimen-irizpideak adjudikazio-irizpide gisa baloratzea (SPKLren 88.1 eta 90. artikulua).

Adjudikazio-irizpideek ez dituzte inola ere aipatzen enpresa lizitatzailerari eskatzen zaizkien betekizunak; kaudimen-irizpideak, alegia. Gainera, adjudikazio-irizpideak aukeratu izanaren justifikazioa behar bezala arrazoituta dago dagokion memorian. Hauek izan dira adjudikazio-irizpide horiek: memoria teknikoa, egin beharreko lanak deskribatzeko eta justifikatzeko memoria, lanaren antolamendua eta programa, hobekuntzak, eskaintza ekonomikoa eta berme-epea.

Gure ustez, aipatutako azken hiru irizpideei dagokienez ez dago inolako zalantzarik, ez baitute zerikusirik lizitatzaileraren kaudimen-baldintzekin. Hala ere, lehenengo irizpideari dagokionez (memoria teknikoa) eta, zehazkiago, bigarrenari dagokionez (egin beharreko lanak deskribatzeko eta justifikatzeko memoria), uste dugu balitekeela gaizki-ulertu semantiko bat egotea. Hau da, kontratua sustatu duen organoak irizpide hori jasotzean honako hauek egiaztatu nahi ditu: enpresa lizitatzailerak zenbateraino ezagutzen dituen obraren esparrua eta ingurunea, nola antolatuko dituen bere ekipoak eta baliabideak obra hori gauzatzeko, nola programatuko duen bere zeregin bakoitza eta horretarako zer ekipo izango dituen, obra-antolaketa horretan zer baldintzatzailek izan dezaketen eragina, etab.; hau da, helburua ez da inola ere enpresa lizitatzaileraren batek obra egiteko zer-nolako gaitasuna duen aztertzea, ez eta lizitatzaileraren baten giza baliabideak eta baliabide materialak baloratzea ere. Aitzitik, obra horren gauzatea nola antolatuko den eta proposamen hori bideragarria eta koherentea den aztertu nahi da.

A4 gabezia. «Agirietan aurreikusitako balizko aldaketa ez dator bat SPKLren 204. artikuluan ezarritakoarekin».

Erreferentziako kontratuko administrazio-klausula partikularren agiriaren 16. atalean (Kontratua aldatzea) zehaztutako inguruabarrak aurreikusteko modukoak dira itsas aldeko obra bat egitean. Horregatik, Zuzendaritza honek egokitzen eta zuzentzen jo zuen hura sartzea. Klausula horretan, argi eta zehatz zerrendatzen dira aurreikusitako kontratualdaketa bat gerta litekeen kasuak, hala nola hauek: ezkutuko eraikuntza-elementuak agertzea; behar bezala dimentsionatuta ez zeuden elementuak (jarduketa-eremuan





gauzatutako aurreko obretako as-built proiektuen ondorioz, benetan obran egindakoarekin bat ez datorren eta, beraz, errealitatea islatzen ez duen unitateren bat dagoenean); proiektuak hasiera batean balioetsi zuena baino kontserbazio-egoera okerragoan dauden elementuak, aurreikusi ezin zitezkeenak.

Bestalde, klausulan aldaketaren irismena, muga, izaera eta baldintzak zehazten dira, bai eta inguruabar horiek gertatzen direla egiaztatzeko prozedura, baldintzak eta metodoa ere (obra-zuzendaritzak sinatutako txostena, Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak izendatutako kontratuaren arduradunaren oniritziarekin). Elementu horiek guztiak baldintza-agiriaren 16. klausulan deskribatu dira; hortaz, uste dugu aipatutakoa ez dela urruntzen 204. artikuluan xedatutakotik.

### **ESP. 23. Gas naturalaren hornidura. Hiru lote.**

**A6 gabezia. Justifikatu gabe salbustea behin betiko bermetik (SPKLren 107.1 art ).**

107.1 artikulua honako hau xedatzen du: «Hala eta guztiz ere, kontratuko inguruabarrei erreparatuta, kontratazio-organoak salbuets dezake adjudikazioduna behin betiko bermea eratzeko betebeharretik, administrazio-klausula partikularren agirian egoki justifikatuta; bereziki, prezioa ordaindu baino lehen entregatu eta hartu behar diren ondasun kontsumigarrien horniduren kasuan».

Kontratu honen administrazio-klausula partikularren agiriko 8. klausula espezifikoa honako hau adierazten da: «8.2.- Behin betiko bermea: EZ, hura ez eskatzea justifikatzen duten arrazoi hauengatik: prezioa ordaindu baino lehen entregatu eta hartu behar diren ondasun kontsumigarrien hornidurak direlako (SPKL, 107.1 artikulua)».

Ondorioz, behar bezala justifikatutzat jotzen da behin betiko bermetik salbuetsi izana.

### **ESP. 24. Inprimatzeko, kopiak egiteko eta eskaneatzeko ekipoak alokairu erregimenean hornitu eta mantentzea Segurtasun Sailerako.**

**B1 gabezia. Adjudikazio-epaia SPKLren 158. artikuluan ezarritako gehieneko epea baino luzeagoa da.**

Beharrezkoa da adjudikazioa zein testuingurutan egin zen eta ondoren kontratua nola formalizatu zen zehaztea. Hala, adierazi behar da ezen Kontratazio Mahaiak 2019ko urriaren 25ean Kontratazio Organoari egindako adjudikazio-proposamenetik, 2021eko otsailaren 16an azken adjudikazioa egin eta kontratua formalizatu zen arte, zenbait gorabehera gertatu zirela, eta kontratazio-arloko bi errekurso berezi jarri zirela, eta, jakina, horiek luzatu egin zuten aipatutako kontratazioaren azken fasea.





**ESP. 25. Zuntz optikoa garraiatzeko sarearen bilakaera teknologikoa.**

**B1 gabezia.** Adjudikazio-epaia SPKLren 158. artikuluan ezarritako gehieneko epea baino luzeagoa da.

Kontratatuzailearen profileen jasota dagoen dokumentazioaren arabera, B gutun-azalak, «eskaintza ekonomikoak eta formulen bidez ebaluatzeak diren irizpideak», 2020ko urriaren 27an ireki ziren, eta adjudikazioa 2020ko abenduaren 22an egin zen; beraz, ez zen gainditu SPKLren 158.2 artikulua xedatzen duen bi hilabeteko gehieneko epea.

**ESP. 26. Garraio sanitarioa anbulantzia ez-asistentzialetan, konbentzionaletan, eta garraio kolektibokoetan. Atzerapenak.**

**C2 gabezia.** Gorabehera - berrorka ekonomikoa - Garraio sanitario programatua.

Izaera sozialeko edo sanitarioko edo hezkuntza-izaerako zerbitzu-kontratuak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen IV. eranskinean aipatzen dira (Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzendarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora), bai eta lege horren 47. xedapen gehigarrian ere. Kontratu horiek badute berezitasun bat; izan ere, ekonomikoki orekatu daitezke, ezin baitira zerbitzu-kontratutzat jo zentzu hertsian.

Arrazoibide hori kontratazio-organoak 2021eko apirilaren 23an berrorka horri buruz emandako Ebazpenean dago azalduta (6. eranskinean jaso da), eta, aldi berean, Saileko Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritzaren txosten juridikoan oinarritzen da.

**ESP. 27. Posta-zerbitzuak. Bi lote.**

**A7 gabezia.** Baldintza-agiriak aldatzea jarduketak atzera ekarri gabe (SPKLren 122.1 art.)

Lizitazio-iragarkia 2021eko otsailaren 23an bidali zen EBAOn argitaratzeko, eta 2021eko otsailaren 26ko EBAOn eta EAEko Kontratazio Publikoaren Plataforman argitaratu zen. Eskaintzak aurkezteko 30 eguneko epea argitalpena EBAOn bidali zen egunetik aurrera hasi zen (SPKLren 156.2 artikulua). Horrela, eskaintzak aurkezteko epea 2021eko martxoaren 23an amaitzen zen.

Geroago, eta Barne Araubideko Zerbitzuak idatzitako memoriaren ondoren, zeinak eskaintzak baloratzeko irizpideen osaketan gabezia batzuk detektatu baitzituen, Kontratazio Organoak beste Ebazpen bat eman zuen, martxoaren 4ko 149/2021 Ebazpena, eta haren bidez partzialki aldatu ziren baldintza-agiriak. Ebazpen horren atalean hau adierazten da: «Bigarrena.- Lizitazio-prozedura eta eskaintzak aurkezteko epea berriz has daitezen erabakitzea. Eskaintzak aurkezteko epe berriak jatorrizkoaren iraupen bera izango du. Horrenbestez, 2021eko apirilaren 8an amaituko da, 13:00etan».

Ebazpen hori 2021eko martxoaren 4an argitaratu zen EAEko Kontratazio Publikoaren Plataforman.



Ondorioz, eskaintzak aurkezteko epea atzeratzeko betebeharra bete zen, SPKLren 122.1 artikulua ezartzen duen bezala.

**ESP. 29. Gipuzkoako osasun-barrutiko pazienteentzako laguntza espezializatua prozesu azpiakutueta eta kronikoetan. Covid-19 programaren gastua.**

**A5 gabezia. Balio zenbatetsia: luzapenen zenbatekoak ez ditu jasotzen baldintza-agirietan aurreikusitako aldaketak.**

Ezinezkoa zen baldintza-agirietan aurreikusitako aldaketaren balio zenbatetsia kuantifikatzea, une hartan ez baikenekien zenbaterainokoa zen; izan ere, epidemiaren eta txertaketa-kanpainaren bilakaerari estuki lotuta zegoen.

**ESP. 30. Bizkaiko osasun-barrutiko pazienteentzako erresonantzia magnetikoko eta OTako osasun-zerbitzuak.**

**A4 gabezia. Agirietan aurreikusitako balizko aldaketa ez dator bat SPKLren 204. artikuluan ezarritakoarekin.**

Espedientea segidako traktuko kontratu bati dagokio, eta, bertan, unitate kopurua zenbatetsia da (AKPA, 1.5 klausula). Beraz, aldaketa benetako behar handiagoak egiaztatzen direnerako dago aurreikusita, eta behar horiek sor ditzaketen arrazoi nagusiak aipatzen dira: Osakidetza/Osateken ekipoei gorabeherak izatea, diagnostiko-proba mota horien eskaera zenbatetsitakoa baino gehiago handitzea, eta proba horiek asistentzia-indikazio berrietan erabiltzea.

Beraz, uste dugu aldaketa hori bat datorrela 204. artikuluan xedatutakoarekin; izan ere, aldaketa-klausula modu argi, zehatz eta zalantzagabean idatzita dago, eta behar besteko xehetasunarekin zehazten dira norainokoa, mugak eta izaera: kontratatutako unitate kopurua handitzea, horien prezioa aldatu gabe, hasierako aurrekontuaren % 20ko gehieneko kostura iritsi arte.

**ESP. 31. Mundaka, Bermeo, Armintza eta Plentziako portuetan, lurrazala, ur-lamina eta ontzietatik datozen hondakinak garbitzea.**

**A3 gabezia. Kaudimen-irizpideak adjudikazio-irizpide gisa baloratzea (SPKLren 88.1 eta 90. artikulua).**

Zuzendaritza honek proposatutako adjudikazio-irizpideei dagokienez, adierazi behar da irizpide egokiak direla, segidako traktuko zerbitzuak kontratatzeke agirietan ohikoak, eta eskaintzarik onuragarriena baloratzea ahalbidetzen dutela. Irizpide horiek ez dituzte inola ere aipatzen enpresa lizitatzailerei eskatzen zaizkien betekizunak; kaudimen-irizpideak, alegia. Gainera, adjudikazio-irizpideak aukeratu izanaren justifikazioa behar bezala arrazoituta dago dagokion memorian. Adjudikazio-irizpide horiek honako hauek izan dira: lan-programa, zerbitzuaren plangintza, eskura dauden baliabideen antolaketa, hobekuntzak, eskaintza ekonomikoa, kalitate-ziurtagirien aurkezpena eta beste kalitate-irizpide batzuk.



Gure ustez, eskaintza ekonomikoari eta hobekuntzei buruzko irizpideei dagokienez, ez dago inolako zalantzarik, ez baitute zerikusirik lizitatzailer baten kaudimen-baldintzekin. Hala ere, lehenengo irizpideari dagokionez (lan-programa) eta, zehazkiago, lehen eta bigarren azpi-irizpideei dagokienez (zerbitzuaren plangintza eta eskura dauden baliabideen antolamendua), uste dugu balitekeela gaizki-ulertu semantiko bat egotea. Hau da, kontratua sustatzen duen organoak irizpide horiek jasotzean zera egiaztatu nahi du: enpresa lizitatzailerak zenbateraino ezagutzen dituen zerbitzuaren esparrua eta ingurunea; nola antolatuko dituen bere ekipoak eta baliabideak portu hori garbitzeko, nola programatuko duen bere zeregin bakoitza; zer garbiketa-protokolo eta lan-metodologia baliatuko dituen eta horretarako zer ekipo izango dituen; hau da, helburua ez da inola ere enpresa lizitatzailer batek obra egiteko zer-nolako gaitasuna duen aztertzea, ez eta zer giza baliabide eta baliabide material dituen baloratzea ere; jakin nahi dena da nola planteatuko den obra horren gauzatzea, eta proposamen hori bideragarria, koherentea, egokia eta portuko jarduerarekin bateragarria den.

Kalitate-ziurtagiriak eta beste kalitate-irizpide batzuk aurkezteari dagokionez (kasu honetan, esate baterako, berdintasun-plan bat, langileen lanbide-heziketako plan bat eta jokabide-arauei buruzko kode deontologiko bat), uste dugu irizpide horiek kontratuaren objektuarekin zuzenean lotuta daudela, eta horiek aurkezteak zerbitzu hobea ematea ekarriko duela, hau da, horiek edukitzea lagungarria izango dela kalitate handiagoko zerbitzu bat jasotzeko. Alabaina, ez dira ezinbestekoak izango zerbitzu hori behar bezala emateko; hau da, ziurtagiri horiek aurkeztea eta behar bezala egiaztatzea zerbitzua emateko hautazkotzat hartu behar da, baina ez nahitaez kotzat.

**ESP. 32. 2021eko eta 2022ko ekitaldietako publizitate-tarteak planifikatu eta erostea. Hezkuntza Saila.**

**A3 gabezia. Kaudimen-irizpideak adjudikazio-irizpide gisa baloratzea (SPKLren 88.1 eta 90. artikulua).**

«Antolaketa eta lana» irizpidearen balorazioaren helburua da kontratua artikulatzeko operatiba eta enpresa lizitatzaileraren erantzuteko gaitasuna baloratzea. Kontratuari lotutako giza baliabideei ez ezik, lan-moduei eta zerbitzua emateko erantzun-kalitateari ere egiten die erreferentzia, kontratuaren operatiba eragingarrian. Horregatik, lizitatzailerari eskatzen zaizkien gutxieneko gaitasun-baldintzak gainditzen dituen eta horiek lehiatzea inola ere mugatu nahi ez duen eskaintzaren ezaugarri espezifiko bat kontuan hartzeko aukera jaso beharko luke.

Beraz, kaudimen profesionaleko irizpide baten translazio hutsetik haratago doan interpretazio gisa ulertu behar da; kalitate-betekizun bat da eta prozesuak antolatzeke ezarritako adierazle nekez objektibagarrien bidez objektibatu nahi da.

**C1 gabezia. Aurrekontu-zuzkidura ez dator bat kontratuaren formalizazio-datarekin eta kontratuaren egiazko betetze-mailarekin.**



Herri Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzaren 2021eko abenduaren 30eko Ebazpenaren bidez, kontratu honen (esp. C02/007/2020) urterokoen aurrekontu-doikuntza egin zen.

**ESP. 35. Programa eta hitzarmen desberdinetan parte hartzen duten kolektiboen istripu-aseguruak eta erantzukizun zibila.**

**B1 gabezia. Adjudikazio-epaia SPKLren 158. artikuluan ezarritako gehieneko epea baino luzeagoa da.**

2020ko abuztuaren 14an, baztertutako lizitatzaille batek kontratazio-arloko errekurtsu berezi bat aurkeztu zuen KEAOn aurrean. Horregatik atzeratu zen adjudikazioa. KEAOk 2020ko abenduaren 2an eman zuen ebazpena; haren bidez, baietsi egin zen jarritako errekurtsu berezia. Baiespen horren aurrean, aurkeztutako eskaintzen lehentasun-ordena aldatu behar izan zen, eta ezin izan zen adjudikazio-ebazpena egin 2020ko abenduaren 22ra arte.

#### III.4.4 KONTRATU TXIKIAK

Izapidetze-prozedura desegokia.

| Saila                                | Kasu    |            | Alegazioa   |
|--------------------------------------|---------|------------|---|
|                                      | Kopurua | Zenbatekoa |   |
| Kultura eta HP                       | 40      | 465.704,17 | Kontratu bat berak ere ezin du objektu izan beste batekin batera taldekatu daitekeen prestaziorik (batera lizita daitezen), kontuan hartuta, gainera, Saila osatzen duten zuzendaritzetako titular bakoitza kontratazio-organoa dela (Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen 73/2021 Dekretuaren 4. artikulua).  |
| Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa | 2       | 36.179,00  | Bi kontratuen kontratazio-objektua ez da bera. «Toki-ekonomia dinamizatzeko plataforma martxan jartzea» kontratuaren objektua honako hau zen: plataforma adimendun bat sortzea, hiriko merkataritza-espazioak dinamizatzeko aproposa eta horrelako inguruneetan jada aplikatutakoa. Toki-dinamizazio ekonomikoko plataforma, hiriko merkataritza-eremu bati egokitutako DUC (Dynamic Urban Commerce) konfigurazioduna, plataforma konfiguragarri eta adimenduna da, eta merkataritza-aktiboaren kudeaketan laguntzeko behar diren tresnak eskaintzen ditu, partaidetzaren ikuspegitik eta jarduten duen ingurunearen garapen ekonomikoan duen eraginaren ikuspegitik. Gainera, CMS (Content Management System) aukerak eskaintzen ditu, esaterako, eduki adimendunaren kudeatzailea izatea, eta CRM (kontaktuen kudeatzailea) kudeaketa ahalbidetzen du. Plataforma horrek adimen artifiziala baliatzen du informazioa aztertzeko eta ekintzen eraginkortasuna ebaluatzeko. Horri esker, proiektu pilotua osatzen duten ekintza guztiei forma eman dakieke eta udalerriko eragileen eskura goi-mailako tresna teknologikoa jartzen da. Horregatik, sustatu zen plataforma garatzeko eta hura Laudioko hiri-jarduera ekonomikoaren ezaugarrietara egokitzeko kontratazioa. Hala, garatutako soluzio partikularren laguntza-, eguneratze- eta mantentze-lanak egiten dituen aplikazioa eskuratu zen, urteko lizentziarekin. |

.../...



Herri Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

| Saila            | Kasu    |                   | Alegazioa   |
|------------------|---------|-------------------|---|
|                  | Kopurua | Zenbatekoa        |   |
| Segurtasun Saila | 4       | 66.894            | <p>«Tokiko dinamizazio-taldearentzako aholkularitza eta laguntza» kontratua, berriz, tokiko taldeari laguntza teknikoa emateko beharrari buruzkoa da, lurralde-kudeaketako Smart plataforma abian jartzeko trebetasun digitalak garatu ditzan. Kontratazio horren xedea zen aholkularitza eskaintzea plataforma adimenduneari ezarri beharreko tokiko komunikazio- eta marketin-planaren diseinuan, jarraipenean eta euskarrian. Kontratazioak aholkularitza teknikoa eskatzen zuen tokiko taldeari prestakuntza emateko, besteak beste, zeregin hauetarako: tokiko dinamizazio ekonomikoa, proiektuaren helburuak eta jarraipen-adierazleak zehaztu ondoren; tokiko dinamizazio-taldea prestatzea eta babestea; turismoko eta tokiko jardueretako ekimenak eta dinamikak gainbegiratzea; Laudioko udalerrira egokitutako funtzionalitate eta zerbitzu berriak definitzea. Premia horrek izaera puntuala izan zuen. Ez zen asmorik egon denboran zehar hari jarraipena emateko.</p> <p>T-0067/21 eta T-0068/21 espedienteek objektu eta helburu desberdinak dituzte. Izan ere, lehenengoa sentsibilizazio-saioak gauzatzekoa da, eta bigarrena, berriz, bide-segurtasuneko programa berri bat sortu eta garatzekoa. Beraz, objektua ez da aldatu SPKLren 118. artikuluan ezarritako atalase kuantitatiboak aplikatzea saihesteko.</p> <p>M-0115/21 eta M-0116/21 kontratuak enpresa berarekin bakarrik egin daitezkeela pentsatu da, enpresa hori proposamena egin duen Zuzendaritzak erabiltzen dituen disdrometroen fabrikatzailea delako eta Sailak erabiltzen dituen eguzki-irradiazioaren sensoreak banatzeko baimena duen enpresa bakarra delako. Beraz, jabetza industrialak babesteko arrazoiek justifikatzen dute bi espedienteak enpresa berarekin kontratatzea, eta, gainera, objektuak desberdinak dira, eta, beraz, objektua ez da aldatu SPKLren 118. artikuluan ezarritako atalase kuantitatiboak aplikatzea saihesteko.</p> |
| <b>TOTAL</b>     |         | <b>568.777,17</b> |   |

7. eranskinean kontratu txikiei buruzko kasuak zehazten dira, eta aurretik adierazitako iruzkinak aurkezten dira horietarako.

## Hezkuntza Sailaren obra txikiak

Hezkuntza Sailak 585 zentro mantendu behar ditu, hau da, 700 eraikin baino gehiago. Eraikin horiek zerbitzu desberdinak hartzen dituzte, gehienak ikastetxe funtzioa dute, baina irakaskuntzari laguntzeko zerbitzu guztiak ere eskaintzen dituzte. Kontuan izan behar da, halaber, zentro horietako 416k sukaldea dutela. Eraikin kopurua hain handia denez, urtean zehar askotariko jarduketak egin behar izaten dira horietako bakoitzean, hala nola hautsitako labe bat birjartzea, edo egoera txarrean dauden bainugela batzuk berritzea. Esku-hartze horiek edozein unetan eta edozein ikastetxetan sortzen dira, eta berehala gauzatu behar dira, pentsaezina baita ikastetxe bat ikasleentzako janaria berotzeko laberik gabe edukitzea edo bainugeletako komunek ez funtzionatzea. Horren ondorioz, era horretako jarduketa askotan, ikastetxeak berak egiten du zuzeneko erosketa, kontratu txiki baten bidez, edo, bestela, administrazioak, ordezkartzetatik edo Lakuatik. Kasu horietan berehala jardun behar da, eta ezin da itxaron antzeko beste kasu batzuk sortu arte erosketa



Herri Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

zentralizatua egin ahal izateko; bestela, zentroek ezingo lukete eman legez eman behar duten zerbitzua.

**Espedientean ez dago justifikazio-agiririk.**

| Saila                                | Kasu    |   |
|--------------------------------------|---------|---|
|                                      | Kopurua | Alegazioa   |
| Kultura eta HP                       | 5       | Sail honen 5 kontratuen memorietan kontratatzeko beharra justifikatzen da (ikus 8.1 - 8.5 eranskinak).  |
| Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa | 2       | Bi kontratu horiek adjudikatzeko ebazpenetan (ikus 9.3 eta 9.4 eranskinak) honako hau adierazten da: ...«SPKLren 118. artikuluan jasotakoa errespetatzen dela egiaztatu da, hau da, kontratuaren objektua ez dela aldatu kontratazioen arau orokorren aplikazioa saihesteko...» |

## ABREVIATURAS

|          |  |
|----------|--|
| ACG      | Acuerdo de Consejo de Gobierno.  |
| ADIF     | Administrador de Infraestructuras Ferroviarias.  |
| AGE      | Administración General del Estado.   |
| BEI      | Banco Europeo de Inversiones.  |
| CAPV     | Comunidad Autónoma del País Vasco.   |
| CMCE     | Comisión Mixta del Concierto Económico.  |
| DOUE     | Diario Oficial de la Unión Europea.  |
| ETS      | Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea.   |
| FEADER   | Fondo Europeo Agrario de Desarrollo Rural.   |
| FEAGA    | Fondo Europeo Agrario de Garantía.   |
| FEDER    | Fondo Europeo de Desarrollo Regional.  |
| FEMP     | Fondo Europeo Marítimo y de Pesca.   |
| FSE      | Fondo Social Europeo.  |
| IVA      | Impuesto sobre el Valor Añadido.   |
| IVF      | Instituto Vasco de Finanzas.   |
| LCSP     | Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.  |
| LGS      | Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.  |
| LOEPSF   | Ley Orgánica 2/2012, de 27 de abril, de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera.  |
| LPGCAPV  | Ley 1/2021, de 11 de febrero, de Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2021.                                |
| MRR      | Mecanismo de Recuperación y Resiliencia.   |
| NRFPV    | Nueva Red Ferroviaria del País Vasco.  |
| OCE      | Oficina de Control Económico.  |
| PCPCAE   | Plan de Contabilidad Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, aprobado por Orden de 25 de junio de 2012, del Consejero de Economía y Hacienda. |
| PYMES    | Pequeñas y Medianas Empresas.  |
| REACT-UE | Programa de Ayuda a la Recuperación para la Cohesión y los Territorios de Europa.  |
| RTSU     | Red de transporte sanitario urgente.   |
| SGR      | Sociedad de Garantía Recíproca.  |



|           |  |
|-----------|--|
| TRLCEC    | Decreto Legislativo 2/2017, de 19 de octubre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Control Económico y Contabilidad de la Comunidad Autónoma de Euskadi.  |
| TRLPOHGPV | Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.  |
| TRRPE     | Decreto Legislativo 1/2011, de 24 de mayo, por el que se aprueba el Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de Régimen Presupuestario de Euskadi y se regula el régimen presupuestario aplicable a las Fundaciones y Consorcios del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi. |
| TH        | Territorio Histórico.  |
| TVCP      | Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.  |
| UE        | Unión Europea.   |
| UPV/EHU   | Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea.  |





## I. INTRODUCCIÓN

El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas/Herri Kontuen Euskal Epaitegia, conforme a lo establecido en la Ley 1/1988, reguladora del mismo y en su Programa Anual de Trabajo, ha realizado este informe de fiscalización de la Cuenta de la Administración General de la CAPV para el ejercicio 2021.

La fiscalización abarca los siguientes aspectos:

- Legales: cumplimiento de la normativa aplicable en las áreas relativas al presupuesto, endeudamiento, operaciones financieras, personal, contratación de obras, servicios y suministros, concesión de subvenciones y ayudas públicas e ingresos de derecho público.
- Contables: se analiza si la Cuenta se elabora de conformidad con los principios contables que resultan de aplicación.
- Análisis financiero de la situación económica de la Administración General de la CAPV.
- El alcance del trabajo no incluye un análisis sobre la eficacia y eficiencia del gasto. No obstante, las deficiencias detectadas se detallan en el epígrafe “Consideraciones sobre los sistemas de control interno y procedimientos de gestión”.

## II. OPINIÓN

### II.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD

1.- El expediente relativo a las actuaciones de emergencia para la contención de la ladera asociadas a las obras de urbanización de la Unidad de Ejecución 734.01, en los barrios de Iturrigorri y Gardezabal de Bilbao (expediente número 19), adjudicado por 2,8 millones de euros, se ha tramitado mediante el procedimiento excepcional de emergencia, sin que quede debidamente justificada la utilización de dicho procedimiento por la falta de inmediatez en la ejecución de las actuaciones a realizar (deficiencia A1) (ver A.18).

2.- Los Consejos de Gobierno de 15 de junio, 27 de julio y 9 de noviembre de 2021 y de 22 de febrero y 3 de mayo de 2022, mediante el procedimiento excepcional previsto en el artículo 24.4 del TRLCEC, han autorizado el pago de obligaciones reconocidas correspondientes al ejercicio 2021 cuyo importe asciende a 127,1 millones de euros, que fueron informados negativamente por la OCE. Estos gastos corresponden a 53 contratos de servicios por 108,8 millones de euros, 3 contratos de suministros por 4,6 millones de euros, 2 contratos de obras por importe de 851.232 euros, 2 convenios por importe de 5,8 millones de euros y a indemnizaciones por cese en la prestación de los servicios de comedores escolares y transporte escolar por importe de 7 millones de euros. Los incumplimientos observados han sido la realización de prestaciones sin tramitar el oportuno expediente contractual y sin observar los principios de publicidad y concurrencia que hubiera correspondido conforme a lo establecido en la normativa contractual. La Administración efectuó pagos de estas obligaciones por un importe de 76,4 millones de euros, con anterioridad a la autorización contenida en dichos acuerdos (ver A.18).

En nuestra opinión, excepto por los incumplimientos anteriormente descritos, la Administración General de la CAPV ha cumplido razonablemente, en el ejercicio 2021, la normativa legal que regula su actividad económico-financiera.

### II.2 OPINIÓN SOBRE LA CUENTA DE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL

En nuestra opinión y considerando lo expuesto en las Notas 1 a 4 recogidas en la Liquidación del Presupuesto de 2021, las cuentas adjuntas de la Administración General de la CAPV expresan en todos los aspectos significativos la actividad económica del ejercicio 2021, la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera a 31 de diciembre de 2021, así como de sus resultados y flujos de efectivo correspondientes al ejercicio anual terminado en dicha fecha, de conformidad con el marco normativo de información financiera que resulta de aplicación y, en particular, con los principios y criterios contables contenidos en el mismo.

### III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN

Este apartado recoge tanto deficiencias que no afectan de manera relevante al cumplimiento de los principios que rigen la actividad económico-financiera, como aspectos procedimentales que se ponen de manifiesto para la mejora de la gestión.

#### III.1 PRESUPUESTOS Y CONTABILIDAD

3.1.1.- No se dispone de un detalle individualizado del inmovilizado del Balance de Situación correspondiente a partidas tales como instalaciones técnicas, equipos informáticos, maquinaria, utillaje y mobiliario, aplicaciones informáticas, etc. Los elementos se registran de forma agrupada por año de adquisición. El importe total registrado de esta forma asciende a 149,1 millones de euros.

